

# Samsung

## GT I9300



Euskaltelek itzultako eta  
ekoiztutako eskuliburua



# Eskuliburuaren erabilera

Eskerrak ematen dizkizugu Samsung telefono mugikor hau aukeratzeagatik. Samsungen aparteko teknologian eta goi-mailako estandarretan oinarritutako kalitate handiko komunikazio mugikorra eta entretenimendua emango dizu gailu honek.

Zure gailuaren funtzioak eta ezaugarriak azaltzeko bereziki diseinatua da eskuliburu hau.






## Lehenengo irakurri beharrekoa

- Gailua erabiltzen hasi aurretik, irakurri eskuliburu osoa eta segurtasun-argibide guztiak, gailua behar bezala eta era seguruan erabiltzen duzula bermatzeko.
- Gailuaren aurrez zehaztutako doikuntzetan oinarrituta daude eskuliburu honetako deskribapenak.
- Gerta daiteke eskuliburu honetan agertzen diren irudiak eta pantaila-irudiak ez izatea produktu errealak dituen berak.
- Gerta daiteke eskuliburu honetako edukiak eta zerbitzu-hornitzaileak edo telefono-operadoreak emandako produktua edo softwarea bat ez etortzea. Gainera, aurrez abisatu gabe alda daiteke. Sartu Samsungen webgunean (**<http://www.samsung.com>**), eskuliburuaren bertsiorik berriena eskuratzeko.
- Erabilgarri dauden funtzioak eta zerbitzu osagarriak aldatu egin daitezke gailuaren, softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Eskuliburu honen formatua eta entrega Android sistema eragilean oinarritzen da, baina erabiltzailearen sistema eragilearen arabera alda daiteke.
- Baliteke ekipo informatikoetako antzeko aplikazioek gailu honetan beste era batera funtzionatzea, eta gerta daiteke ekipo informatikoetarako bertsioan eskura dauden funtzio guztiak ez izatea.

- Aplikazioak eta funtzioak aldatu egin daitezke eskualdearen edo hardware-zehaztapenen arabera. Samsungek ez ditu bere gain hartzen hirugarrenen aplikazioek sorrarazitako errendimendu-arazoak.
- Samsungek ez du bere gain hartzen editatutako erregistroak doitzegatik edo sistema eragileko softwarean aldaketak egiteagatik sor daitezkeen errendimendu- edo bateraezintasun-arazoen ardurarik. Sistema eragilea pertsonalizatzen saiatzeak gailuak edo aplikazioek oker funtzionatzea eragin dezake.
- Gailuaren softwarea eguneratu dezakezu Samsungen webgunean (**<http://www.samsung.com>**) sartuta.
- Gailu honekin batera emandako softwareak, audioak eta pantaila-atzealdeek erabilera-lizentzia mugatua dute, Samsungen eta haien jabeen artekoa. Material horiek helburu komertzialekin edo beste helburu batzuekin erabiltzea copyright-legeak urratzea da. Samsung ez da egingo erabiltzaileen arau-hauste horien arduradun.
- Gerta daiteke gastu gehigarriak izatea datu-zerbitzu hauek erabiltzeagatik, besteak beste: mezuak, kargatzea eta deskargatzea, sinkronizazio automatikoa edo kokapen-zerbitzuak erabiltzea. Kargu gehigarriak saihesteko, hautatu datu-plan egoki bat. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
- Gorde eskuliburu hau behar duzunean kontsultatu ahal izateko.

# Jakinarazpenak egiteko ikonoak

Hasi aurretik, eskuliburu honetan agertzen diren ikonoak ezagutzea komeni da:

	<b>Abisua</b> —zure telefonoa edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.
	<b>Kontuz</b> —zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.
	<b>Oharra</b> —oharrak, erabilera-gomendioak edo informazio gehigarria.
	<b>Kontsultatu</b> —lotutako informazioa duten orrialdeak. ejemplo: ▶12. or (“ikus 12. orrialdea” esan nahi du)
	<b>Ondoren</b> —pauso bat emateko hautatu behar dituzun aukeren edo menuen ordena. Adibidez: Aplikazioen zerrendan, hautatu <b>Ezarpenak &gt; Gailuari buruz</b> (horrek esan nahi du, <b>Ezarpenak</b> ondoren, <b>Gailuari buruz</b> hautatu behar dela).

## Copyrighta

Copyright © 2012 Samsung Electronics

Erabiltzailearen eskuliburu hau nazioarteko copyright-legeek babestuta dago.

Ezin da eskuliburu honen zatirik erreproduzitu, banatu, itzuli ez eta transmititu ere bitarteko elektronikoko edo mekanikoko erabiliz (fotokopiatzea eta grabatzea barne), eta ezingo da informazioa gordetzeko eta berreskuratzeko sistemetan gorde Samsung Electronics-en aurretiazko idatzizko baimenik gabe.

## Marka komertzialak

- SAMSUNG eta SAMSUNGen logotipoa Samsung Electronics-en marka erregistratuak dira.
- Google, Inc.-en marka erregistratuak dira Android, Google<sup>®</sup>, Google Maps<sup>®</sup>, Google Mail<sup>®</sup>, YouTube<sup>®</sup>, Google Play<sup>®</sup> Store, Google Latitude<sup>®</sup> eta Google Talk<sup>®</sup>.
- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth<sup>®</sup>, mundu osoan.
- Microsoft Corporation-en marka komertzial erregistratua da Windows Media Player<sup>®</sup>.
- WiFi Alliance-ren marka komertzial erregistratuak dira Wi-Fi<sup>®</sup>, Wi-Fi Protected Setup<sup>®</sup>, Wi-Fi Direct<sup>®</sup>, Wi-Fi CERTIFIED<sup>®</sup>, eta WiFi-ren logotipoa.
- DivX<sup>®</sup>, DivX Certified<sup>®</sup> eta horiei lotutako logotipoak Rovi Corporation-en edo horren subsidarioen marka erregistratuak dira, eta lizentziapean erabiltzen dira.

**DIVX**<sup>™</sup>  
**HD**

- Gainerako marka komertzialak eta egile-eskubideak beren jabeenak dira.

 **dlina**<sup>®</sup>  
CERTIFIED

**C E 0168** 

## **DIVX VIDEO-RI BURUZ**

DivX LLCk, Rovi Corporationen enpresa subsidiarioak, sortutako bideo digitaleko formatua da DivX®. DivX bideoak erreproduzitzen dituen gailua da hau, DivX Certified®-k modu ofizialean ziurtatua. Joan [www.divx.com](http://www.divx.com) helbidera, zure fitxategiak DivX bideo-formatura bihurtzeko behar duzun informazio eta software-tresna gehiago jasotzeko.

## **DIVX VIDEO-ON-DEMAND-i BURUZ**

DivX®-ek onartutako gailu honek DivX-en erregistratu behar du DivX VOD (Video-On-Demand) edukiak erreproduzitzeko. Erregistro-kodea sortzeko, bilatu DivX VOD atala gailuaren konfigurazio-menuan. Joan HYPERLINK "<http://vod.divx.com>"vod.divx.com helbidera, informazio gehiago jasotzeko zure erregistroa osatzeko moduari buruz.

DivX Certified®-k onartu du 720 p-ko HD-ko DivX® bideoak erreproduzitzeko, premium edukiak barne.

# Edukiak

## Instalazioa

**11**

Bilgarria kentzea	11
Gailuaren diseinua	12
Teklak	14
SIM edo USIM txartela eta bateria sartzea	15
Bateria kargatzea	17
Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)	21

## Nola Hasi

**23**

Gailua pizteko eta itzaltzeko	23
Ukipen-pantaila erabiltzea	24
Mugimenduak erabiltzea	27
Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzea eta desblokeatzea	31
Pantaila nagusiaren aurkezpena	32
Aplikazioetara sartzea	37
Hainbat aplikazio aldi berean erabiltzea	39
Gailua pertsonalizatzea	40
Testua sartzea	46

## Komunikazioa

**49**

Deiak	49
Meezuak	60
Google Mail	62
Posta elektronikoa	64

Google Talk	66
ChatON	67
Mezularitza-zerbitzua	68
Google+	68

## **Denbora-pasak 69**

Kamera	69
Galeria	82
Musika-erreproduzigailua	85
Music Hub	88
FM irratia	89

## **Informazio pertsonala 92**

Kontaktuak	92
Egutegia	95
S Memo	97
Ahots-grabagailua	100

## **Web-zerbitzuak eta GPSa 102**

Internet	102
Flipboard	106
Game Hub	106
Latitude	107
Mapak	107
Zerbitzu gehiago	109
Nabigazioa	109
Lekuak	110
Play Books	110
Play Films	111
Play Store	111



Samsung Apps	112
S Suggest	112
YouTube	112
Video Hub	114

## **Konektagarritasuna** **115**

USB konexioak	115
WiFi-a	117
Wi-Fi Direct	120
AllShare Cast	121
AllShare Play	122
Sare mugikorrek partekatzea	125
Bluetooth	127
GPS	129
VPNrako konexioak	131

## **Tresnak** **133**

Kalkulagailua	133
Erlojua	133
Deskargak	136
Dropbox	136
Nire fitxategiak	137
NFC	139
Bilatzea	141
SIM tresnen kita	142
Voz S	142

## **Doikuntzak** **143**

Doikuntzen aukeretara sartzea	143
-------------------------------	-----

Wi-Fi	143
Bluetooth	143
Datuen erabilera	143
Ezarpen gehiago	144
Soinua	146
Pantaila	147
Atzealdeak	148
LED adierazlea	148
Mugimendua	149
Energia aurrezpena	150
Biltegitratzea	150
Bateria	151
Aplikazio-administragailua	151
Kontuak eta sinkronizazioa	151
Kokapen-zerbitzuak	151
Segurtasuna	152
Hizkuntza eta testua sartzea	154
Segurtasun-kopiak egiteko eta leheneratzek	159
Dock	159
Data eta ordua	159
Erabilgarritasuna	160
Garatzailearen aukerak	161
Gailuari buruz	162

## **Arazoak konpontzea** **163**

## **Segurtasunari buruzko informazioa** **169**

## **Aurkibidea** **181**

# Instalazioa

## Bilgarria kentzea

Bilatu elementu hauek produktuaren kaxan:

- Gailu mugikorra
- Bateria
- Bizkor hasteko gida




Samsungek onartutako softwarea soilik erabili. Software piratak kalteak edo arazoak eragin ditzake gailuaren funtzionamenduan, eta fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen kalte horiek.



- Litekeena da gailuarekin batera datozen elementuak eta osagarriak desberdinak izatea herrialde batetik bestera edo hornitzaile batetik bestera.
- Hainbat osagarri eros ditzakezu Samsung-en tokiko hornitzailearen bidez.
- Gailuarekin batera emandako elementuak gailu horretarako berariaz diseinatuta daude, eta gerta daiteke beste gailu batzuekin bateragarriak ez izatea.
- Gerta daiteke beste osagarri batzuk ez izatea bateragarriak gailu honekin.
- Samsungek onartutako osagarriak soilik erabili. Onartu gabeko osagarriek gailuak gaizki funtzionatzea eragin dezakete.


# Gailuaren diseinua

## > Aurreko ikuspegia



Zenbakia	Funtzioa
1	Zerbitzuaren argia
2	Entzungailua
3	Bolumen-tekla
4	Hasteko tekla
5	Aukeren tekla
6	Funtzio anitzeko hargunea
7	Kameraren aurreko objektiboa
8	Hurbiltasun-/Argi-sentsorea
9	Ukipen-pantaila
10	Atzera tekla
11	Mikrofonoa






## > Atzeko ikuspegia



Zenbakia	Funtzioa
12	Mikrofonoa <sup>1</sup>
13	GPS <sup>2</sup> antena
14	Flash-a
15	Pizteko / berrabiarazteko / blokeatzeko tekla
16	Kameraren atzeko objektiboa
17	Entzungailuen hargunea
18	Bozgorailua
19	Atzeko estalkia
20	Antena nagusia

1. Aktibatu, soilik, bozgorailuaren edo bideo-grabagailua erabiltzen duzunean.
2. Ez ukitu antenaren eremua eta ez estali eremu hori eskuekin edo bestelako objektuekin GPS funtzioak erabiltzen ari zarenean.

# Teklak

Tekla	Funtzioa
<p>Pizteko/ Berrabiarazteko<sup>1/</sup> Blokeatzeko tekla</p> 	<p>Gailua pizteko (luze sakatuta), gailuaren aukeretara sartzeko (luze sakatuta), gailua berrabiarazteko (luze sakatu 8-10 segundoz), eta ukipen-pantaila blokeatzeko, itzaltzeko edo pizteko.</p>
<p>Aukerak</p> 	<p>Uneko pantailan dauden aukeren zerrenda irekitzeko, pantaila nagusian dauden aukerak irekitzeko, bilaketa-aplikazioa irekitzeko (luze sakatuta), zenbait aplikazio erabiltzean bilaketa-leiho irekitzeko (luze sakatuta).</p>
<p>Hasiera</p> 	<p>Pantaila nagusira itzultzeko, erabili berri diren aplikazioen zerrenda irekitzeko (luze sakatuta), S Voice aplikazioa irekitzeko (bi aldiz sakatuta).</p>
<p>Atzera tekla</p> 	<p>Aurreko pantailara itzultzeko.</p>
<p>Bolumena</p> 	<p>Gailuaren bolumena doitzeko.</p>

1. Zure gailuak errore larri bat bistaratzen badu, deia mozten bada edo irudia izozten bada, bali-teke berrabiarazi egin behar izatea ondo funtzionatzeko


## SIM edo USIM txartela eta bateria sartzea

Mugikor-zerbitzu batean izena ematean, harpidedunaren identifikazio-zenbakia (SIM txartela) jasoko duzu; han daude izen-ematearen datu guztiak, hala nola identifikazio pertsonaleko zenbakia (PIN) eta aukerako zerbitzuak. UMTS edo HSDPA zerbitzuak erabiltzeko, harpidedunaren identifikazio-modulu unibertsalaren txartel bat (USIM) eskuratu dezakezu.



microSIM txartelak soilik erabil ditzake.


1. Kendu atzeko estalkia



Kontuz azazkalekin atzeko estalkia kentzean.


Estalkia ez tolestu ezta gehiegi biratu ere. Hala eginez gero, estalkia hondatu dezakezu.

2. Sartu SIM edo USIM txartela urre-koloreko kontaktuak beherantz begira dituela.




Ez sartu memoria-txartelik SIM txartelaren artean. Memoria-txartela SIM txartelaren zirrikitan katigatuta geratzen bada, Samsungen zerbitzu-zentro batera eraman beharko duzu gailua, memoria-txartela atera dezaten.

3. Sartu bateria.



4. Jarri atzeko estalkia berriro.





# Bateria kargatzea

Gailua lehen aldiz erabili aurretik, edo bateria denbora luzez erabili ez baduzu, bateria kargatu egin behar duzu. Kargagailu batekin edo gailua ordenagailu batera USB kable baten bidez konektatuta kargatu dezakezu bateria.




Erabili beti Samsungek onartzen dituen kargagailu eta kableak. Baimenik gabeko kargagailuek eta kableek bateria leherrarazi dezakete, eta gailua kaltetu.



- Bateriaren maila baxua denean, gailuak ohartarazpen-tonua igortzen du, eta bateria baxu dagoela dioen mezua bistaritzen du. Kargatu bateria gailua erabiltzen jarraitzeko.
- Bateria guztiz deskargatuta badago, ezingo duzu gailua piztu, ezta kargagailua konektatuta dagoela ere. Utzi bateria deskargatua ordu batzuek kargatzen, gailua berriro pizten saiatu aurretik.
- Aplikazio bat baino gehiago aldi berean, sareko aplikazioak edo beste gailu batekin konektatu beharreko aplikazioak erabiltzen badituzu, bateria azkar agortuko da. Datuak transferitzen ari dela sareko deskonexioak edo potentzia-galerak saihesteko, ongi kargatu bateria aplikazio horiek erabili aurretik.

## > Kargagailuarekin kargatzea

1. Konektatu kargagailuaren mutur txikia funtzio ugariko hargunera.



Kargagailua gaizki konektatuz gero, baliteke gailuari kalteak eragitea. Bermeak ez ditu barne hartzen okerreko erabileragatik sortutako kalteak.

2. Konektatu kargagailuaren mutur handia elektrizitate-hargune batera.



- Gailuak, kargatzen ari dela, elikadura ezegonkorra jasotzen badu, gerta daiteke ukipen-pantailak ez funtzionatzea. Hori gertatzen bada, deskonektatu kargagailua gailutik.
- Kargatzen ari den bitartean, gerta daiteke gailua berotzea. Hori normala da, eta ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.
- Gailua ez bada ongi kargatzen, joan Samsung-en zerbitzu-zentro batera gailuarekin eta kargagailuarekin.

3. Bateria erabat kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua gailutik, eta, gero, korrontehargunetik.



Ez kendu bateria gailua kargagailura konektatuta dagoen bitartean. Hala eginez gero, gailuak kalteak izan ditzake.



Kargagailuak ez du pizteko eta itzaltzeko etengailurik, eta, beraz, ez du elektrizitate-horniketa eteteko aukerarik; ondorioz, erabiltzaileak kendu behar du kargagailua saretik. Gainera, konektatuta dagoenean, entxufetik gertu egon behar du. Energia aurrezteko, kargagailua deskonektatu erabiltzen ari ez zarenean. Bateriaren karga-ikonoei buruz

## Bateriaren karga-ikonoei bur

Gailua itzalita duzula bateria kargatzean, ikono hauek adieraziko dute zein den bateriaren kargaren uneko egoera:



Kargatzen



Karga osoa

## > USB kable baten bidez kargatzea

Kargatu aurretik, egiaztatu ordenagailua piztuta dagoela.

1. Konektatu USB kablearen mutur txikiena (mikro USBa) funtzio ugariko hargunean.
2. Konektatu USB kablearen mutur handiena ordenagailuaren USB ataketako batean.



Erabiltzen duzun USB-kablearen arabera, gerta liteke kargatzearen hasiera segundo batzuk atzeratzea.

3. Bateria guztiz kargatuta dagoenean, deskonektatu USB-kablea gailutik, eta, gero, ordenagailutik.

## > Bateria-kontsumoa murriztea

Bateria aurrezten laguntzen duten zenbait funtzio ditu gailuak. Gailu horiek pertsonalizatu eta bigarren mailako funtzioak desaktibatuz gero, denbora gehiago iraungo dizu gailuak karga batetik bestera.

- Energia aurrezteko modua aktibatzeko.
- Gailua erabiltzen ari ez bazara, aldatu modu inaktibora, pizteko tekla sakatuta.
- Itxi behar ez dituzun aplikazioak, ataza-kudeatzailearen bidez.
- Desaktibatu Bluetooth funtzioa.
- Desaktibatu WiFi funtzioa.
- Desaktibatu sinkronizazio automatikoko aplikazioak.
- Murriztu atzealdeko argiztapeneko denbora.
- Murriztu pantailaren distira.

## Memoria-txartela sartzea (hautazkoa)

Gehienez ere 64 GB-ko gaitasuna duten memoria-txartelak onartzen ditu gailuak. Fabrikatzailearen eta memoria-txartel motaren arabera, baliteke txartel batzuk gailuarekin bateragarriak ez izatea.




Samsungek sektoreak memoria-txartelentzat onartutako estandarrak erabiltzen ditu, baina baliteke marka batzuk ez izatea guztiz bateragarriak gailuarekin. Bateragarria ez den memoria-txartel bat erabiliz gero, gailua edo memoria-txartela kaltetu egin daitezke. Gerta liteke memoria-txartelean gordetako datuak kaltetzea ere.



- Memoria-txarteletan, FAT fitxategi-egitura soilik onartzen du gailuak. Fitxategi-egitura ezberdinarekin formateatu den memoria-txartel bat sartzen baduzu, berriz formateatzeko eskatuko dizu gailuak.
- Datuak sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelen bizitza erabilgarria murriztu egingo da.
- Gailuan memoria-txartel bat sartzen duzunean, memoria-txartelaren fitxategi-direktorioa extSdCard karpetan agertuko da.

1. Kendu atzeko estalkia.
2. Sartu memoria-txartela urre-koloreko kontaktuak beherantz begira dituela.



3. Sartu memoria-txartela horretarako dagoen zirrikitan, dagokion tokian doitzen den arte.
4. Jarri estalkia berriro.

## > Memoria-txartela kentzea

Ziurtatu gailua ez dela ari memoria-txartela erabiltzen.

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Memoria** → **Kendu SD txartela** → **Ados**.
2. Kendu atzeko estalkia.
3. Sakatu leun memoria-txartelean, gailutik ateratzeko.
4. Atera memoria-txartela.
5. Jarri estalkia berriro.



Ez atera memoria-txartela gailua informazioa transferitzen ari den bitartean edo txartelean sartuta zauden bitartean; izan ere, datuak gal ditzakezu, eta txartela edo gailua hondatu.

## > Memoria-txartela formateatzea

Memoria-txartela formateatzen baduzu ordenagailu batean, litekeena da gailuarekin bateragarria ez izatea. Gailuan bakarrik formateatu memoria-txartela.

Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Memoria** → **SD txartela formateatu** → **SD txartela formateatu** → **Ezabatu dena**.



Memoria-txartela formateatu aurretik, gogoan izan datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin behar dela. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

# Nola hasi

## Gailua pizteko eta itzaltzeko

1. Luze sakatu pizteko tekla.
2. Sartu SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea, eta hautatu OK (beharrezkoa bada).



Gailua lehen aldiz piztean, jarraitu pantailako argibideei gailua konfiguratzeko. Saioa hasi edo Googlen kontu bat sortu beharko duzu Googleko zerbitzariarekin elkarreaginean aritzen diren aplikazioak erabiltzeko.

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko tekla, eta hautatu **Itzali** → **Onartu**.



- Haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan zaudenean (hegazkinetan eta ospitaletan, adibidez), bete langile ofizialek egindako ohar eta argibide guztiak.
- Gailuaren sarerik gabeko zerbitzuak bakarrik erabiltzeko, hegazkin-moduan jarri gailua. ► 144. or.

## Ukipen-pantaila erabiltzea

Gailuko ukipen-pantailaren bidez, erraz hauta ditzakezu elementuak, bai eta funtzioak egin ere. Ikas itzazu ukipen-pantaila erabiltzeko oinarriko ekintzak.



- Ez sakatu indarrez ukipen-pantaila, eta ez erabili tresna puntadunik hura sakatzeko. Bestela, baliteke ukipen-pantaila kaltetzea edo ondo ez funtzionatzea.
- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostatiakoek ukipen-pantailaren funtzionamenduan eragin dezakete.
- Ukipen-pantailak ez du likidorik ukitu behar. Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtzionatzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.



- Ukipen-pantaila ahalik eta ondoen erabiltzeko, kendu pantailaren geruza babeslea gailua erabili aurretik.
- Ukipen-pantailak geruza bat du, giza gorputzak emititzen dituen karga elektriko txikiak detektatzen dituena. Errendimendu hobea izateko, hatz-mamiarekin sakatu ukipen-pantaila. Ukipen-pantailak ez du erreakzionatuko tresna puntadun (erakusle edo boligrafo batekin, adibidez) sakatuz gero.



Ekintza hauen bidez kontrola dezakezu ukipen-pantaila:

### **Sakatu**

Hatzarekin behin sakatu, menu bat, aukera bat edo aplikazio bat hautatzeko edo abiarazteko.




### **Luze sakatu**

Sakatu elementu bat bi segundoan baino gehiagoan.



### **Arrastatu**

Ukitu elementu bat, eta mugitu kokaleku berri batera.




### **Bi aldiz sakatzea**

Ukitu elementu bat azkar bi aldiz




## Desplazatu

Desplazatu azkar gorantz, beherantz, ezkerre-rantz edo eskuinerantz, zerrendak edo pantailak erabiliz.



## Atximurra

Jarri bi hatz bereizita, eta elkartu azkar.



- Gailuak desaktibatu egiten du ukipen-pantaila denbora-tarte jakin batean erabiltzen ez baduzu. Pantaila aktibatzeke, sakatu pizteko tekla edo hasierako tekla.
- Pantailako argia itzali aurretik zenbat denbora igaro behar den zehazteko. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Pantaila denboraz kanpo**.

## Mugimenduak erabiltzea

Mugimenduak ezagutzeko sistemarekin, zenbait ekintza egin daitezke gailua mugituz edo eskuekin keinuak eginez.

Funtzio horiek erabiltzeko, mugimenduaren ezagutza-funtzioa aktibatu behar duzu lehendabizi. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Mugimendua**.


### Altxatu

Altxatu gailua denbora batez erabili ez baduzu edo pantaila itzali egin bada. Gailuak bibratu egingo du dei galduren bat edo mezu berriren bat badaukazu.




### Belarritik gertu eutsi

Dei bat, mezu bat edo harremanetarako informazioa kontsultatzean, altxatu gailua, eta eutsi belarritik hurbil ahots-dei bat egiteko.




## Okertu

Gailua bi eskuekin eusten ari zarela, luzez sakatu pantailako bi puntu eta okertu gailua aurrerantz edo atzerantz, kontsultatzen ari zaren argazkiak edo webguneak handitzeko edo txikitzeko.




## Mugitzeko desplazatu

Elementu bati eusten ari zarela, mugitu gailua ezkerrerantz edo eskuinerantz elementua pantaila nagusiko beste orri batera edo aplikazio-zerrendara mugitzeko.



## Bilatzekeo desplazatu

Irudi bat handituta dagoela, luze sakatu pantailako puntu bat, eta lerratu gailua edozein norabidetan, irudian desplazatzeko.




## Astindu

- Astindu gailua bluetootha darabilten gailuak bilatzeko.
- Astindu gailua mezu elektronikoen zerrenda edo Yahoo News, Yahoo Finance edo AccuWeather-eko informazioa eguneratzeko.




Eguneraketek ez dute funtzionatzen pantaila nagusiko widgetetarako.




## Bi aldiz sakatu

Ukitu gailua bi aldiz kontaktu-zerrenda bateko edo mezu elektronikoen zerrenda bateko goiko aldera igarotzeko.



## Irauli

Jarri gailua buruz behera melodiak isilarazteko, multimedia-erreproduktzioa geldiarazteko edo FM irratia isilarazteko.




## Eskua gainetik pasatu

Lerratu eskua pantailan, eskuinera edo ezkerre-  
ra, irudi bat geldiarazteko.



Aplikazio bat erabiltzen ari bazara, ezin  
duzu irudirik geldiarazi.




## Esku-ahurrarekin sakatzea

Ukitu pantaila eskuarekin, multimedia-errepro-  
dukzioa eteteko edo FM irratia isilarazteko.



## Biratu

Pantaila blokeatuta dagoela, luzez sakatu pan-  
taila, eta biratu gailua ikuspegi horizontalean  
kamera martxan jartzeko (kameraren lasterbide  
aktibatu bada). ► 152. or.



## Ukipen-pantaila eta teklak blokeatzea eta desblokeatzea


Gailua denbora-tarte batean erabiltzen ez baduzu, ukipen-pantaila itzali eta automatikoki blokeatuko dira pantaila eta teklak, nahi gabe eragiketarik ez egiteko. Ukipen-pantaila eta teklak eskuz blokeatzeko, sakatu pizteko tekla.

Desblokeatzeko, aktibatu pantaila pizteko tekla edo hasierako tekla erabiliz, eta mugitu hatza edozein norabidetan.

Pantaila desblokeatzeko, mugimendua desblokeatzeko aukera erabil dezakezu. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna** → **Blokeatu pantaila** → **Mugimendua** → **Onartu**. Pantaila desblokeatzeko, luze sakatu pantailako puntu bat, eta okertu gailua aurrerantz.



Pantaila blokeatzeko funtzioa aktiba dezakezu beste inor zure datu pertsonaletara eta gailuan gordetako informazioa sar ez dadin. ► 42. or.



# Pantaila nagusiaren aurkezpena

Pantaila nagusitik gailuaren egoera ikus daiteke, eta aplikazioetara sar daiteke.

Pantaila nagusiak hainbat panel ditu. Mugitu ezkerrera edo eskuinera, pantaila nagusiaren panel batera iritsi arte. Halaber, pantailaren beheko puntu bat hauta dezakezu dagokion panelera zuzenean joateko.






## > Ikono adierazleak



Pantailan bistaratzen diren ikonoak aldatu egin daitezke herrialdearen eta zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Ikonoa	Definizioa
	Ez dago seinalerik
	Seinalearen intentsitatea
	GPRS sare bati konektatuta
	EDGE sare bati konektatuta
	HSDPA sare bati konektatuta
	WiFi sarbide-puntua konektatuta
	Bluetooth funtzioa aktibatuta
	GPSan oinarritutako zerbitzuak martxan
	Deia martxan
	Dei galdua
	Ordenagailu batekin konektatuta
	SIM edo USIM txartelik gabe



Ikonoa	Definizioa
	Mezu berria
	Alarma aktibatuta
	Desplazamenduan (zerbitzu-eremutik kanpo)
	Modu isila aktibatuta (bibrazioa)
	Modu isila aktibatuta (isilik)
	Hegazkin-modua aktibatuta
	Errorea gertatu da edo kontuz ibili behar da
	Bateriaren karga-maila

## > Jakinarazpen-panela erabiltzea

Jakinarazpen-panela irekitzeko, ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz. Panela ezkutatzeko, arrastatu beheko aldea gorantz.

Jakinarazpen-panelean, gailuaren uneko egoera ikus dezakezu, eta aukera hauek erabili:

- **Wi-Fi:** WiFi funtzioa aktibatzeko eta desaktibatzeko. ► 117. or.
- **GPS:** GPS funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko. ► 129. or.
- **Soinua:** Modu isila aktibatu edo desaktibatzeko. Gailua isilaraz dezakezu, edo modu isilean bira dezan konfiguratu.
- **Pantaila biraketa:** Gailua biratzen duzunean interfazea ere bira dadin edo bira ez dadin konfiguratzeko.
- **Bateria aurrez.:** Energia aurrezteko modua aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- **Jakinazpenak:** Jakinarazpen-ikonoak ezkutatzeko edo bistaratzeko.


- **Datu mugik.:** Datu-konexioa aktibatzen edo desaktibatzen.
- **Bluetooth:** Bluetooth funtzioa aktibatzen edo desaktibatzen. ► 127. or.
- **Modo coche:** Gidatzeko modua aktibatzen edo desaktibatzen.
- **Sinkronizazioa:** Aplikazioen sinkronizazio automatikoa aktibatzen edo desaktibatzen.



Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.


## > Pantaila nagusian elementu bat lekuz aldatzea

Luze sakatu elementu bat, eta arrastatu kokaleku berri batera.



## > Pantaila nagusiko elementu bat ezabatzen

Luze sakatu elementu bat, eta arrastatu zakarrontzira.





## > Lasterbideen panela pertsonalizatzea

Lasterbideen panela pertsonaliza dezakezu (pantaila nagusiaren behealdean dago) aplikazioetarako lasterbideak gehituz edo ezabatuz.

- Aplikazio baten ikonoa ezabatzeko, luze sakatu, eta, gero, arrastatu zakarrontziraino.
- Aplikazio baterako lasterbidea gehitzeko, luze sakatu lasterbide berria pantaila nagusian, eta eraman leku huts batera.

## > Pantaila nagusian panel bat jarri edo kentzea

Pantaila nagusian panelak jarri edo ken ditzakezu, zure widgetak antolatzeko.

1. Pantaila nagusian, jarri bi hatz pantaila gainean, eta elkartu azkar edizio-modura aldatzeko.
2. Panelak gehitzeko, kentzeko edo berrantolatzeko:
  - Panel bat ezabatzeko, luze sakatu panelaren miniaturazko irudia, eta arrastatu zakarrontzira.
  - Panel berri bat gehitzeko, hautatu .
  - Pantaila nagusiaren panel nagusia ezartzeko, hautatu .
  - Panelen ordena aldatzeko, luze sakatu panel baten miniatura, eta arrastatu kokapen berrira.
3. Sakatu atzera tekla aurreko pantailara itzultzeko.

## > Widgetak erabiltzea

Widgetak aplikazio txikiak dira, eta funtzio eta informazio erabilgarri eskaintzen dute pantaila nagusian.



- Widget batzuk web-zerbitzuetara konektatzen dira. Web widget bat erabiltzeak kargu gehigarriak izan ditzake.
- Eskuragarri dauden widgetak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

### Pantaila nagusiari widget bat eranstea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu Widget bat, widgeten panela irekitzeko.
2. Zoaz ezkerrera edo eskuinera widgeten panelean, widget bat aurkitzeko.
3. Luze sakatu widget bat pantaila nagusiari gehitzeko.

### Lasterbide bat gehitzea pantaila nagusiko doikuntzei

Sarrien erabiltzen dituzun doikuntza-aukeretarako lasterbideak sor ditzakezu pantaila nagusian.

4. Aplikazio-zerrendan, hautatu Widget bat, widgeten panela irekitzeko.
5. Luze sakatu **Ezarpenen lasterbideak**, eta askatu pantaila nagusian.
6. Hautatu doikuntza-aukera bat, hala nola S Beam edo Wi-Fi.

## Aplikazioetara sartzea

Jarri martxan aplikazioak, eta aprobetxatu ahalik eta gehien gailuaren funtzioak. Aplikazio-zerrenda berrantola dezakezu zure lehenespenei egokitzeko, edo, bestela, Interneteko aplikazioak deskarga ditzakezu gailuaren funtzionalitatea hobetzeko.




1. Pantaila nagusian, hautatu **Menua** aplikazioen zerrendara sartzeko.
2. Joan ezkerrera edo eskuinera, beste pantaila bateraino. Halaber, pantailaren beheko puntuetako bat hauta dezakezu dagokion panelera zuzenean joateko.
3. Hautatu aplikazio bat.
4. Sakatu atzera tekla aurreko pantailara itzultzeko. Sakatu hasierako tekla, pantaila nagusira itzultzeko.



- Aplikazio baterako lasterbidea gehitu dezakezu pantaila nagusian, aplikazioen zerrendan dagokion ikonoa luze sakatzen baduzu.
- Funtzio jakin batzuk erabiltzen dituzun bitartean gailua biratzen baduzu, interfazea ere biratu egingo da. Interfazea biratzerik nahi ez baduzu, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Biratu pantaila automatikoki**.
- Gailua erabiltzen ari zarenean, aukera duzu pantaila baten argazkia egiteko, hasierako tekla eta pizteko tekla aldi berean sakatuta. Irudia hemen gordeko da: **Nire fitxategiak** → **sdcard0** → **Pictures** → **Screenshots**.

## > Aplikazioak antolatzea

Aplikazio-zerrendako aplikazioen ordena alda dezakezu, edo, bestela, kategoriatan multzokatu.

1. Aplikazio-zerrendan, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Editatu**.
2. Luze sakatu aplikazio baten ikonoa.
3. Aplikazioak antolatzea:
  - Aplikazio bat mugitzeko, arrastatu kokapen berri batera.
  - Karpeta berri bati aplikazio bat gehitzeko, arrastatu hona: 
  - Aplikazio bat panel berri batera mugitzeko, arrastatu hona. 
  - Aplikazioa desinstalatzeko, arrastatu hona: 



Aplikazio baten ikonoa  aldera arrastatuz gero, aplikazioari buruzko informazioa ikus dezakezu.

4. Hautatu **Gorde**.

## > Aplikazio bat deskargatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Zerbitzu gehiago**.
2. Bilatu aplikazio bat, eta deskargatu gailuan.

Play Store, Samsung Apps eta S Suggest-eko aplikazioak ere deskargatu ditzakezu.

## > Aplikazio bat desinstalatzea

1. Aplikazio-zerrendan, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Desinstalatu**.
2. Hautatu  aplikazio baten ikonoan, eta, gero, hautatu **Onartu**.



Deskargatutako aplikazioak soilik desinstala ditzakezu

## > Duela gutxi erabilitako aplikazioetara sartzea

1. Luze sakatu hasierako tekla, duela gutxi erabili dituzun aplikazioak ikusteko.
2. Hautatu aplikazio bat.

## Hainbat aplikazio aldi berean erabiltzea

Gailuak zenbait zeregin egiteko aukera ematen du, aldi berean zenbait aplikazio exekutatuta. Aplikazio bat baino gehiago batera erabiltzeko, sakatu hasierako tekla aplikazio bat erabiltzen ari zarela. Gero, hautatu beste aplikazio bat pantaila nagusian.

## > Aplikazioak kudeatzea

Hainbat aplikazio kudeatu ditzakezu ataza-kudeatzailearekin.

1. Luze sakatu hasierako tekla, eta hautatu **Ataza kudeatzailea** → **Aktibo dauden aplikazioak**. Ataza-kudeatzailea martxan jarriko da, eta aktibo dauden aplikazio guztiak bistaratuko ditu.
2. Aktibo dauden aplikazioak kontrolatzea:
  - • Aplikazioz aldatzeko, hautatu bat zerrendatik.
  - • Aplikazio bat ixteko, hautatu **Amai**.
  - • Aktibatuta dauden aplikazio guztiak ixteko, hautatu **Amai gu**.

# Gailua pertsonalizatzea

Gailua hobeto aprobetxatzeko, aldatu doikuntzak, eta egokitu zure nahietara.


## > Pantailako hizkuntza aldatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Hizkuntza eta sarrera** → **Hizkuntza**.
2. Hautatu hizkuntza.

## > Ukipen-tonuak piztu edo itzaltzea

Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Soinua** → **Ukimen soinuak**.

## > Gailuaren bolumena doitzea



1. Igo edo jaitsi bolumena bolumen-teklarekin.
2. Hautatu , eta arrastatu kontrol lerragarriak soinu bakoitzerako bolumen-maila doitzeko.

## > Deiareen doinua aldatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Soinua** → **Gailuaren dei tonua**.
2. Hautatu doinu bat → **Ados**.

## > Modu isilera aldatzea

Gailuaren soinua aktibatzeke edo desaktibatzeke, egin hauetako bat:

- Ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko. Gero, hautatu Sonido.
- Luze sakatu pizteko tekla, eta hautatu **Isilarazi**.
- Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonia** → **Teklatua**, eta, ondoren, luze sakatu  .



## > Pantaila nagusirako atzealdea hautatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila atzealdea** → **Pantaila nagusia**.
2. Hautatu irudi-karpeta bat → irudi bat.

## > Pantailako letra-tipoa aldatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Letra estiloa**.
2. Hautatu iturri bat → **Bai**.

## > Pantailaren distira doitzeko

Gailuak argi-sentsore bat dauka, inguruko argi-maila detektatu, eta, horren arabera, pantailaren distira doitzen duena. Eskuz ere konfiguratu daitezke pantailaren distira.



Pantailaren distira-mailak eragina du gailuak bateria kontsumitzeko abiaduran.

## Gailua konfiguratzeko distira automatikoki doitzeko

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Argitasuna**.
2. Hautatu **Argitasun automatikoa**-ren ondoko egiaztapen-laukia.
3. Hautatu **Ados**.  
Gailuaren distira handitu egingo da ingurune argitsueta, eta automatikoki txikituko da ingurune ilunetan.

## Distira eskuz doitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantaila** → **Argitasuna**.
2. Desaktibatu **Argitasun automatikoa**-ren ondoko egiaztapen-laukia.
3. Arrastatu kontrol lerragarria ezkererantz edo eskuinerantz.
4. Hautatu **Ados**.

## > Gailua blokeatzea

Gailua blokeatzeko, aktibatu pantailako blokeo-funtzioa.



- Pasahitza ahaztu baduzu, joan Samsungen zerbitzu-zentro batera gailuarekin, berrezar dezaten.
- Legez kanpoko softwareak erabiltzearen ondorioz pasahitzak edo informazio pribatua galduz gero edo beste kalte bat jasanez gero, Samsung ez da kalte horien arduradun egingo.

## Aurpegi bidezko desblokeatzea konfiguratzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantailaren blokeoa** → **Aurpegia desblokeatuta**.
2. Hautatu **Set it up** → **Continue**.
3. Doitu gailua, zure aurpegia irudi barruan gera dadin.
4. Zure aurpegia ondo hartzen duenean, hautatu **Continue**.
5. Osatu PINaren edo bigarren mailako desblokeatze-ereduaren konfigurazioa.

## Aurpegi bidezko eta ahotsaren ezagutza bidezko desblokeatzea konfiguratzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantailaren blokeoa** → **Aurpegia eta ahotsa**.
2. Hautatu **Set it up** → **Continue**.
3. Doitu gailua, zure aurpegia irudi barruan gera dadin.

4. Zure aurpegia ondo hartzen duenean, hautatu **Continue**.
5. Hautatu (...).
6. Esan lau aldiz desblokeatze-komando gisa erabiliko duzun hitza edo esaldia.
7. Hautatu **Done**.
8. Osatu PINaren edo bigarren mailako desblokeatze-ereduaren konfigurazioa.

### Desblokeatzeko eredia zehaztea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantailaren blokeoa** → **Diseinua**.
2. Irakurri pantailako argibideak, ikusi adibide gisa emandako ereduak, eta hautatu **Hurrengoa**.
3. Marraztu eredu bat, gutxienez lau puntu lotzeko, hatza arrastatuz, eta hautatu **Jarraitu**.
4. Marraztu berriro eredia, berresteko, eta hautatu **Ados**.
5. Osatu segurtasun-kopien PINaren konfigurazioa.

Desblokeatze-eredua ahazten bazaizu, pantaila desblokeatzeko fntzioa desaktiba dezakezu segurtasuneko PINa erabiliz.



### Desblokeatzeko PINa zehaztea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantailaren blokeoa** → **PIN**.
2. Sartu PIN berria, eta hautatu **Continue**.
3. Sartu PINa, eta hautatu **Ados**.

## Desblokeatzeko pasahitza zehaztea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Pantailaren blokeoa** → **Pasahitza**.
2. Sartu beste pasahitz bat (alfanumerikoa), eta hautatu **Jarraitu**.
3. Sartu pasahitza berriro, eta hautatu **Ados**.

## > SIM edo USIM txartela sartzea

Gailua blokea dezakezu SIM edo USIM txartelak dakarren PINarekin. SIMa edo USIMa blokeatzeko funtzioa aktibatuta dagoela, PINa idatzi behar duzu gailua pizten duzun bakoitzean edo PINa behar duten aplikazioetara sartzen zarenean.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna** → **Ezarri SIM txartelaren blokeoa** → **Blokeatu SIM txartela**.
2. Sartu PINa, eta sakatu **Onartu**.



- PIN okerra gehiegitan idazten baduzu, SIM edo USIM txartela blokeatu egingo da. PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) sartu behar duzu, SIM edo USIM txartela desblokeatzeko.
- PUK okerra idatzi eta SIM edo USIM txartela blokeatzen bada, eraman txartela zerbitzuen hornitzaileari, desblokea dezan.

## > Mugikor-bilatzailearen funtzioa aktibatzea

Galdutako edo lapurtutako gailuaun SIM edo USIM txartel berri bat sartzen denean, mugikor-bilatzailearen funtzioak kontaktu-zenbakia bidaltzen die bi hartzaileri, gailua kokatu eta berreskuratu ahal izateko. Funtzio hori erabiltzeko, Samsungeko kontu bat sortu behar duzu, gailua Internet bidez urrutitik kontrolatzeko.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Segurtasuna** → **SIM aldaketa alerta**.
2. Hautatu **Saioa hasi**.  
Samsungeko kontu bat sortzeko, hautatu **Sortu kontu**.
3. Sartu zure helbide elektronikoa eta Samsungeko kontuaren pasahitza, eta hautatu **Saioa hasi**.
4. Arrastatu **Sim alerta aldaketa** eskuinera.
5. Hautatu **Alerta mezua**.
6. Idatzi hartzailerei bidali nahi zaien testu-mezua, eta hautatu **Ados**.
7. Gehitu hartzailak:
  - Hautatu **Sortu**, eta sartu eskuz telefono-zenbakiak, herrialde-kodea eta + ikurra barne.
  - Hautatu telefono-zenbakiak zure kontaktu-zerrendatik, **Kontaktuak** sakatuta.
8. Hautatu **Gorde**.

## Testua sartzea

Testua sartzeko, zuzenean mikrofonoari hitz egin, teklatu birtualean karaktereak hautatu, edo pantailan idatz ditzakezu.



Testua sartzeko moduak ez du funtzionatzen hizkuntza batzuetan. Testua sartzeko, bateragarria den hizkuntzetako batera aldatu behar duzu idazteko hizkuntza.

### > Testua sartzeko modua aldatzeko

1. Testu-eremu batean, ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko.
2. Hautatu **Hautatu sarrera metodoa** → testua sartzeko metodo bat.


### > Testua sartzea Googleren ahots bidezko sarrerako funtzioarekin

1. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
2. Amaitutakoan, aukeratu **Listo**.



Ahots-ezagutzarako hizkuntzak gehitzeko, hautatu hizkuntza → **Idazkera metodo aktiboak**.


### > Samsung teklatuaren bidez testua sartzea


1. Testu-eremu batean, ukitu ikono adierazleen eremua eta arrastatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko.
2. Hautatu **Hautatu sarrera metodoa** → **Sarrera metodoak konfiguratu** eta hautatu , **Teclado Samsung**-en alboan → **Teklatu aldaketa** → eta teklatu-mota bat.
3. datzi testua tekla alfanumerikoak hautatuta.



Testua sartzean, biratu gailua, QWERTY teklatua pantaila osoan ikusteko. Hautatu testua sartzeko behar dituzun tekla birtualak.

Tekla hauek ere erabil ditzakezu



Zenbakia	Funtzioa
1	Maiuskuletara eta minuskuletara aldatzeko.
2	Testua sartzeko modu batetik bestera aldatzeko.
3	Teklatuaren doikuntzetara sartzeko. Luze sakatu  eskuz idazteko modura aldatzeko, testua ahots bide sartzeko edo transferentzia-eremura sartzeko.
4	Sarrera ezabatzeko.
5	Beste lerro bat hasteko.
6	Zuriune bat sartzeko.








Testu prediktiboaren modua (XT9) aktibo dagoela, etengabe sartzeko modua erabil dezakezu; hala, testua sar dezakezu teklatuan mugituz. ► 155. or.

Testua 3x4 teklatuarekin idazteko, modu hauek erabil ditzakezu:

Modua	Funtzioa
ABC	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Hautatu  ABC modura aldatzeko.</li><li>2. Hautatu dagokion tekla birtuala, karaktere zuzena bistaratu arte.</li></ol>
Zenbakia	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Hautatu  zenbakizko modura aldatzeko.</li><li>2. Aukeratu zenbaki bat</li></ol> <p> Zenbakiak sartzeko, sakatu luze ABC moduan tekla birtual bat.</p>
Ikurra	<ol style="list-style-type: none"><li>1. Hautatu  ikur-modura aldatzeko.</li><li>2. Hautatu ◀ edo ▶ ikur-multzo batera joateko.</li><li>3. Aukeratu ikur bat.</li></ol>

## > Testua kopiatzea eta itsastea

Testu-eremu batetik testua kopiatu, eta beste aplikazio batean itsats dezakezu.

1. Luze sakatu testu-zati bat.
2. Arrastatu  edo , kopiatu nahi duzun testua hautatzeko.
3. Hautatu  edo , testua arbelera gehitzeko.
4. Beste aplikazio batean, jarri kursora testua sartu nahi duzun puntuan.
5. Hautatu  → **Itsatsi**, arbeleko testua testu-eremuan sartzeko.



# Komunikazioa



## Deiak

Atal honetan, hauek egiten ikasiko duzu: deiaren funtzioak erabiltzen, deiak egiten eta jasotzen, hitz egiten ari zarela eskura dauden aukerak erabiltzen, deiekin erlazionatutako funtzioak pertsonalizatzen eta erabiltzen.



- Nahi gabe ezer ez idazteko, piztu hurbiltasun-sentsorea ukipen-pantaila automatikoki blokeatzeko gailua aurpegitik hurbil badaukazu ► 57. or.
- Zure gorputzaren edo arroparen elektrizitate estatikoak hurbiltasun-sentsoreari eragin diezaioke dei bat egiten ari zarenean.

### > Dei bat egitea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa** → **Teklatua**, eta sartu eremuko kodea eta telefono-zenbakia.
2. Hautatu  ahots-dei bat egiteko.  
Bideo-dei bat egiteko, hautatu .
3. Hautatu aplikazio bat, deia egitean erabiltzeko (beharrezkoa bada).
4. Hautatu **Deia am.** deia amaitzeko.



- Maiz deitzeko erabiltzen dituzun zenbakiak kontaktu-zerrendan gorde ditzakezu ► 92. or.
- Deien erregistrora sartzeko egin diren azken deietako zenbakiak berriz markatzeko, hautatu **Telefonoa** → **Erregistroak**.

## > Dei bati erantzutea

1. Dei bat jasotzen duzunean, hautatu , eta arrastatu hatza zirkulu handitik kanpora.



Dei-tonua isilarazteko, sakatu bolumen-tekla.

2. Deia amaitzeko, hautatu **Deia am.**

## > Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzen duzunean, hautatu , eta arrastatu hatza zirkulu handitik kanpora.

Deia egin duenari mezu bat bidaltzeko deia errefusatu ondoren, errefusatzeko mezuaren barra (pantailaren behealdean dago) gorantz.



Mezu lehenetsietako bat aukeratu edo zeure mezuak sor ditzakezu. ► 57. or.

## > Nazioarteko dei bat egitea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa** → **Teklatua**, eta luze sakatu **0** <sup>+</sup>, + karakterea sartzeko.

2. Sartu zenbaki osoa (herrialde-kodea, eremu-kodea eta telefono-zenbakia).

3. Hautatu  zenbakia markatzeko.

## > Entzungailuak erabiltzea

Entzungailuak gailura konektatuz gero, ondo erantzun eta kontrolatu ahal izango dituzu deiak:




- Dei bat erantzuteko, sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat ez onartzeko, luze sakatu entzungailuen botoia.
- Dei bat zain uzteko edo berreskuratzeke, luze sakatu entzungailuaren botoia.
- Dei bat amaitzeko, sakatu entzungailuen botoia.

## > Ahots-dei batean aukerak erabiltzea

Aukera hauek erabil ditzakezu ahots-dei bat egiten ari zarela:



Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

- Ahotsaren bolumena doitzeko, sakatu bolumen-teklak gora edo behera.
- Dei bat zain jartzeko, hautatu . Zain dagoen dei bat berreskuratzeke, sakatu .
- Beste dei bat egiteko, hautatu **Gehi. deia**, eta, gero, markatu zenbaki berria.
- Dei batetik bestera joateko, hautatu **Aldatu**.
- Bigarren dei bati erantzuteko, hautatu  eta arrastatu hatza zirkulu handitik kanpora deia zain jartzeko tonua entzuten duzunean. Lehen deia zain geratuko da automatikoki. Zain dagoen deiaren zerbitzuan izena eman behar duzu funtzio hori erabiltzeko.
- Teklatua irekitzeko, hautatu **Teklatua**.
- Bozgorailuaren funtzioa aktibatzeke, hautatu **Bozgor**.



Zarata handia dagoen lekuetan, baliteke deiak ez entzutea bozgorailuaren funtzioarekin hitz egitean. Erabili telefonoaren modu arrunta audioak errendimendu hobe izan dezan.

- Mikrofonoa desaktibatzeko (beste solaskideak ez diezazun entzun), hautatu **Isilarazi**.
- Solaskidearekin bluetooth bidezko entzungailu batekin hitz egiteko, hautatu **Bluetooth**.
- Dei anizkoitz bat egiteko (multikonferentzia), egin edo jaso bigarren deia, eta hautatu **Bateratu** bigarren solaskidearekin konektatzean. Errepikatu prozesu hori solaskide gehiago gehitzeko. Dei anizkoitzen zerbitzuan izena eman behar duzu funtzio hori erabiltzeko.
- Kontaktu-zerrenda irekitzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Kontaktuak**.
- Ohar bat sortzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Oroigarriak**.
- Zarata murrizteko funtzioa desaktibatzeko (atzealdeko zarata kentzen du, solaskideak argi entzun dezan), sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Zarata murriztekoa itzalita**.
- Ekualizadorearen aukera bat hautatu eta deia martxan den bitartean erabiltzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **My call sound**.
- Uneko solaskidea zain dagoen solaskidearekin konektatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu Transferir. Bi solaskideetatik deskonektatuko zara.

## > Bideo-deian dituzun aukerak erabiltzea

Aukera hauek erabil ditzakezu bideo-deia egiten ari zarela:



Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

- Aurreko kameraren eta atzekoaren artean aldatzeko, hautatu **Trukatu kamera**.
- Mikrofonoa desaktibatzeko (beste solaskideak ez diezazun entzun), hautatu **Isilarazi**.
- Solaskideari zure irudia erakutsi nahi ez badiozu, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Ezkutatu**.
- Irudi bat hautatu eta solaskideari erakusteko, hautatu Aukeren tekla, eta, gero, **Irteerako irudia**.

- Teklatua irekitzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Teklatua**.
- Solaskidearekin bluetooth bidezko entzungailu baten bidez hitz egiteko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Entzungailua**.
- Bozgorailuaren funtzioa desaktibatzeke, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Bozgorailua**.
- Irudiari keinu-ikonoak aplikatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Emozio animatuak**.
- Irudiari keinu-ikonoak aplikatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Gai ikuspegia**.
- Ikuspegia aldatu eta animazio-ikuspegia jartzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Gaitu marrazki ikusp.**
- Luze sakatu solaskidearen irudia, aukera hauetara sartzeko:
  - Solaskideari argazkia egiteko, hautatu **Atera argazkia**.
  - Solaskideari bideo bat grabatzeko, hautatu **Grabatu bideoa**.



Leku askotan, legez kanpoko da dei bat grabatzea baimenik gabe. Eskatu beti baimena solaskideari dei bat grabatu aurretik.

## > Dei galdu bat ikustea eta markatzea

Gailuak dei galduak bistaratzen ditu. Deia itzultzeko, ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz jakinarazpen-panela irekitzeko. Gero, hautatu dei galduaren jakinarazpena.

## > Blokeo automatikoa definitzea

Deiak automatikoki ez onartzeko, blokeo automatikoko funtzioa erabil dezakezu, zenbaki jakinen deiak automatikoki ez onartzeko.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Deien konfigurazioa** → **Dei ukatzea**.
3. Arrastatu **Ukatze automatiko modua** etengailua eskuinera.
4. Hautatu **Ukatze automatiko modua** → aukera bat.

Aukera	Funtzioa
Zenbaki guztiak	Batere deirik ez onartzeko.
Ukatze autom. zenbakiak	Automatikoki ez onartzeko telefono-zenbakien zerrendakoen deiak ez onartzeko.

5. Hautatu **Ukatze automatikoen zerrenda**.
6. Hautatu **Sortu**.
7. Idatzi zenbaki bat, eta sakatu **Gorde**.  
Zenbakirako irizpideak konfiguratu ditzakezu.
8. Zenbaki gehiago gehitzeko, errepikatu 6 eta 7 pausoak.

## > FDN modua aktibatzea (markaketa finkoko zenbakia)

FDN moduan, gailuak ez du egingo deirik SIM edo USIM txartelean gordeta ez dagoen zenbakieta-  
ra.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Deien konfigurazioa** → **Ezarpen gehigarriak** → **Markatze finko zenbakiak**.
3. Hautatu **Gaitu FDN**.
4. Sartu SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN 2 kodea, eta hautatu **OK**.
5. Hautatu **FDN zerrenda**, eta gehitu kontaktu gehiago.

## > Deien desbideratzea zehaztea

Deiak desbideratzeko sare-funtzioari esker, sartzen diren deiak zehaztutako beste zenbaki batera bidal ditzakezu. Funtzio hau bereiz defini dezakezu kondizio bat baino gehiagotarako.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Deien konfigurazioa** → **Dei birbidaltzea** → dei-mota bat.
3. Aukeratu egoera bat.
4. Sartu desbideratutako deiak jasoko dituen zenbakia eta hautatu **Gaitu**.  
Zure doikuntza sarera bidaliko da.

## > Deien murrizketa zehaztea

Deien murrizketaren bidez, dei-mota jakin batzuk murriztu daitezke, eta beste pertsonak zure gailuarekin deiak egitea galarazi.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Deien konfigurazioa** → **Ezarpen gehigarriak** → **Dei murrizketa** → dei-mota bat.
3. Hautatu deiak murrizteko aukera bat.
4. Sartu murrizketa-pasahitz bat, eta hautatu **Onartu**. Zure doikuntza sarera bidaliko da

## > Zain dagoen deia zehaztea

Zain dagoen deia sareko funtzio bat da, eta dei bat martxan duzunean sarrerako deirik dagoen jakinarazten dizu. Funtzio hori ahots-deientzat soilik dago eskuragarri.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta aukeratu **Deien konfigurazioa** → **Ezarpn gehigarriak** → **Deia zain**. Zure doikuntza sarera bidaliko da.

## > Dei-erregistro bat edo mezu bat ikustea

Deien eta mezuen erregistroak motaren arabera iragaz daitezke.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa** → **Erregistroak**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Honela ikusi** → aukera bat.



Kontaktu bati deitu edo mezu bat bidal diezaiokezu, erregistroko sarrera batean ezkerrean edo eskuinera mugituz.

3. Hautatu erregistroko sarrera bat xehetasunak ikusteko.



Xehetasunen ikuspegian, dei bat egin dezakezu, zenbaki horri mezua bidali eta zenbakia kontaktuen helbide-liburura edo automatikoki ez onartzeko zerrendara sar dezakezu.

## > Dei-doikuntzak pertsonalizatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonoa**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Deien konfigurazioa**.



3 Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
Dei ukatzea	Zenbaki jakin batzuen deiak automatikoki ez onartzeko. Telefono-zenbakiak erants ditzakezu automatikoki ez onartzeko zerrendan.
Ezarri ukatze mezuak	Dei bat ez onartzean bidaliko den mezua eransteko edo editatzeko.
Dei-abisua → Dei bibrazioak	Gailua konfiguratzeko solaskideak dei bati erantzutean edo dei bat amaitzean dar-dar egin dezan.
Dei-abisua → Dei egoera doinuak	Gailua definitzeko dei bat martxan den bitartean deia nola dagoen jakinarazteko.
Dei-abisua → Aler-tak deietan	Gailua definitzeko dei bat martxan den bitartean dauden gertakizunak jakinarazteko.
Dei erantzutea/ amaitzea → Erantzuteko tekla	Deien erantzuna definitzeko, hasierako tekla sakatuta.
Dei erantzutea/ amaitzea → Energia teklak deiak amaitzeko teklak	Pizteko tekla sakatuta deiak amaitzeko.
Pantaila itzaltze automatikoa	Dei batean hurbiltasun-sentsorea aktibatzeko.
Ezarpen osagarriak deirako → Erantzute automatikoa	Denbora-tarte jakin baten ondoren gailuak automatikoki erantzuteko edo ez erantzuteko (entzungailua konektatuz gero soilik balio du).

Aukera	Funtzioa
Ezarpen osagarriak deirako → Erantz. tenp. automatikoa	Deiei erantzun aurretik gailuak itxarongo duen denbora hautatzeko.
Ezarpen osagarriak deirako → Irteerako dei baldintzak	Bluetooth bidezko entzungailu batekin irteerako deiak egiteko, baita gailua blokeatuta dagoela ere.
Ezarpen osagarriak deirako → Irteerako dei mota	Hautatu irteerako dei-mota bluetooth bidezko entzungailu bat erabiltzeko.
Erabili bol. osag. deietan	Dei batean bolumen-tekla bistartzeko.
Igo bolumena poltsikoan	Gailua definitzeko melodiaren bolumena handitu dezan gailua leku itxi batean dagoela (poltsa batean edo poltsiko batean, adibidez).
Dei birbidaltzea	Sarrerako deiak zenbaki jakin batera bidaltzeko.
Ezarpen gehigarriak → Dei egilearen IDa	Irteerako deietan gainerakoei zure lineako identifikazioa bistartzeko.
Ezarpen gehigarriak → Dei murrizketa	Deiak dei-motaren arabera murrizteko.
Ezarpen gehigarriak → Deia zain	Gailua definitzeko dei bat martxan den bitartean sarrerako deiak jakinarazteko.
Ezarpen gehigarriak → Birmarkatze automatikoa	Konektatu ezin diren edo moztu egiten diren deiei berriro automatikoki deitzeko aukera aktibatzeko.
Ezarpen gehigarriak → Zarata murrizketa	Atzealdeko zarata kentzeko, beste solaskideak argiago entzun diezazun.

Aukera	Funtzioa
Ezarpen gehigarriak → Markatze finko zenbakiak	FDN modu aktibatzeke, eta, hala, SIM edo USIM txartelean gordeta ez dauden zenbakietarako deirik ez egiteko.
Ezarpen gehigarriak → Eremu kode automatikoa	Aurrezenbaki bat sartzeko (lurralde edo herrialde-kodea) automatikoki telefono-zenbakia baino lehen.
Ajustes adicionales → EQ de sonido de llamadas	Hautatu ekualizadorearen aukera bat dei bat martxan dela erabiltzeko.
Ajustes adicionales → EQ personalizado	Pertsonalizatu ekualizadorearen doikuntzak entzungailuarekin erabiltzeko.
Bideo deien irudia	Solaskideari erakusteko beste irudi bat hautatzeko.
Vídeo propio en videollamada recibida	Zure zuzeneko irudia erakusteko solaskideari.
Dei akats aukerak erabili	Ahots-dei bat egiteko bideo-dei bat konektatu ezin denean.
Ahots posta zerbitzua	Ahots-postontzirako zerbitzuen hornitzaile bat hautatzeko.
Ahots mezular. ezarpenak	Ahots-postontzirako zerbitzariaren zenbakia sartzeko. Zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu zenbaki hori.
Bibrazioa	Ahots-mezuak jasotzean gailuak bibra dezan definitzeko.
Kontuak	IP deiak onartzeko eta zure zerbitzu-kontuak IP deietarako konfiguratzeko.
Erabili internet deiak	IP dei-zerbitzuak dei guztietarako edo IP deietarako soilik erabili nahi dituzun definitzeko.




# Mezuak

Testu-mezuak (SMS) edo multimedia-mezuak (MMS) sortzeko eta bidaltzeko, edo bidalitako eta jasotako mezuak ikusteko edo kudeatzeko.





Gerta liteke zure zerbitzu-eremutik kanpo zaudenean mezuak bidaltzeak edo jasotzeak kostu gehigarriak izatea. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## > Testu-mezuak bidaltzea



1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Mezularitza** → .
2. Gehitu hartzaileak:
  - Sartu eskuz telefono-zenbakiak, eta bereiz itzazu koma batekin edo puntu eta koma batekin.
  - Hautatu telefono-zenbakiak zure dei-, mezu- eta kontaktu-zerrendetan,  hautatuta.
3. Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua. Aurpegierak sartzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Gehitu emotikonoa**.
4. Mezua bidaltzeko, hautatu .

## > Multimedia-mezuak bidaltzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Mezularitza** → .
2. Gehitu hartzaileak:
  - Sartu telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak, eta bereiz itzazu koma batekin edo puntu eta koma batekin.
  - Telefono-zenbakiak edo helbide elektronikoak deien, mezuen edo kontaktuen zerrendetatik hautatzeko, sakatu .



Helbide elektroniko bat sartzean, gailuak mezua multimedia-mezu bilakatuko du.


3. Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua. Aurpegierak sartzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Gehitu emotikonoa**.
4. Hautatu , eta erantsi fitxategi bat.
5. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Gaia**. Gero, idatzi gaia.
6. Mezua bidaltzeko, hautatu .

## > Testu-mezu bat edo multimedia-mezu bat ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Mezularitza**.  
Mezuak kontaktuen arabera multzokatzen dira, mezu-kate gisa.
2. Hautatu kontaktu bat.
3. Hautatu multimedia-mezu bat xehetasun gehiago ikusteko.

## > Ahots-postontziko mezu bat entzutea

Dei galduak ahots-postontziko zerbitzari batera desbideratzeko moduan konfiguratu baduzu gailua, deitzen dutenek ahots-mezuak uzteko aukera izango dute deia hartzen ez duzunean.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Telefonia** → **Teklatua**, eta, ondoren, luze sakatu .
2. Jarraitu ahots-postontziko zerbitzariaren argibideei.



Ahots-postontziko zerbitzariaren zenbakia gorde behar duzu, zerbitzarira sartu aurretik. Zenbakia eskuratzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.



## Google Mail

Ikas ezazu Google Mail® Interneteko zerbitzuaren bitartez mezuak bidaltzen edo ikusten.



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Baliteke funtzio horrek beste izen bat edukitzea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.


## > Mezu elektronikoa bat bidaltzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Google Mail** → .
2. Hautatu hartzailearen eremua, eta sartu helbide elektronikoa bat.
3. Hautatu gaia sartzeko eremua, eta idatzi gaia.
4. Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua.
5. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Attach file**. Gero, erantsi fitxategi bat.
6. Mezua bidaltzeko, hautatu .











Konektatuta ez bazaude, edo zerbitzu-eremutik kanpo bazaude, mezu-katean geratuko da mezua berriro konektatu arte eta zerbitzu-eremuaren barruan egon arte.

## > Mezu elektronikoko bat ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Google Mail**.
2. Hautatu  mezu-zerrenda eguneratzeko.
3. Hautatu mezu elektronikoko bat.

Mezuen ikuspegian, erabili aukera hauek:

- Zoaz ezkerrera edo eskuinera aurreko mezura edo hurrengora igarotzeko.
- Mezua gogokoen zerrendari gehitzeko, hautatu .
- Mezuari erantzuteko, hautatu .
- Hartzaile guztiei erantzuteko, hautatu  → **Reply all**.
- Mezua beste lagun batzuei birbidaltzeko, hautatu  → **Forward**.
- Mezua gordetzeko, hautatu .
- Mezua ezabatzeko, hautatu .
- Mezuari etiketa bat gehitzeko, hautatu .
- Mezua irakurri gabeko gisa markatzeko, hautatu .
- Mezua garrantzitsu gisa markatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Mark important**.
- Mezua ezkutatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Mute**. Ezkutuko mezuak ikusteko, hautatu  → **All mail**, etiketa-zerrendan.
- Mezua spam zerrendara eramateko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Report spam**.

- Posta elektronikoko doikuntzak aldatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Settings**.
- Fitxategi erantsi bat ikusteko, hautatu **VIEW**. Zure gailuan gordetzeko, hautatu **SAVE**.

## Posta elektronikoa





Ikas ezazu zure kontu pertsonaleko edo komertzialeko mezu elektronikoak bidaltzen eta ikusten.

### > Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Posta elektronikoa**.
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza.
3. Hautatu **Hurrengoa**. Kontuaren xehetasunak eskuz sartzeko, hautatu **Eskuzko konfig..**
4. Jarraitu pantailako argibideei.

Posta elektronikoko kontua konfiguratzean, mezu elektronikoak gailuan deskargatuko dira. Bi kontu edo gehiago sortu badituzu, txandakatzeko aukera duzu. Hautatu kontu baten izena pantailaren goiko ezkerreko aldean, eta hautatu zer kontutako mezuak berreskuratu nahi dituzun.

### > Mezu elektroniko bat bidaltzea


1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Posta elektronikoa** → .
2. Gehitu hartzaileak:
  - Sartu eskuz posta elektronikoko kontuak, eta bereiz itzazu koma batekin edo puntu eta koma batekin.
  - Hautatu mezuen edo kontaktuen zerrendetako helbide elektronikoak,  aukeratuta.
3. Hautatu gaia sartzeko eremua, eta idatzi gaia.
4. Hautatu testua sartzeko eremua, eta idatzi mezua.
5. Hautatu , eta erantsi fitxategi bat.
6. Mezua bidaltzeko, hautatu .



Konektatuta ez bazaude edo zerbitzu-eremutik kanpo bazaude, mezu-katean geratuko da mezua berriro konektatu arte eta zerbitzu-eremuaren barruan egon arte.




## > Mezu elektronikoa bat ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Posta elektronikoa**.
2. Hautatu  mezu-zerrenda eguneratzeko.
3. Hautatu mezu elektronikoa bat.

Mezuen ikuspegian, erabili aukera hauek:

- Zoaz ezkerrera edo eskuinera aurreko mezura edo hurrengora igarotzeko.
- Mezua erantzuteko, hautatu .
- Mezua beste lagun batzuei birbidaltzeko, hautatu .
- Mezua ezabatzeko, hautatu .
- Mezua garrantzitsu gisa markatzeko, hautatu .
- Mezua garrantzitsu gisa markatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Ez irakurria bezala markatu**.
- Mezua beste karpeta batera mugitzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Mugitu**.
- Mezua zure gailuan gordetzeko, sakatu Opciones tekla, eta hautatu **Gorde mezu elekt.** Grabatutako fitxategia hemen gordeko da: **Nire fitxategiak** → **sdcard** → **Saved Email**.
- Mezuen letra-kolorea aldatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Letra kolorea**.
- Mezuen atzealdeko kolorea aldatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Atzealdeko kolorea**.

- Mezua WiFi edo USB bidez inprimatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Inprimatu**. Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
- Mezu berri bat sortzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Sortu**.
- Hartzaileen helbide elektronikoak agendan gordetzeko kontaktu-talde gisa, sakatu Opciones tekla, eta hautatu **Gorde talde gisa**.
- Posta elektronikoko doikuntzak aldatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Ezarpenak**.
- Erantsitako dokumentu bat zure gailuan gordetzeko, hautatu fitxategi erantsiaren fitxa → .



Baliteke aukera batzuk edo beste batzuk egotea eskuragarri posta elektronikoko kontuaren arabera.

## Google Talk

Ikasi lagunei eta senitartekoei berehalako mezua bidaltzen eta jasotzen Google Talk<sup>™</sup> berehalako mezularitza zerbitzuarekin.




Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.



### > Zeure egoera definitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Google Talk**.
2. Hautatu Google kontua.
3. Hautatu zeure izena lagun-zerrendaren goiko aldean.
4. Pertsonalizatu zeure egoera, zeure irudia eta zeure mezua.

## > Gogokoen zerrendara kontaktu bat gehitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Google Talk** →  .
2. Sartu lagun baten posta elektronikoko helbidea eta hautatu **DONE**.  
Zure lagunak gonbidapena onartzen duenean, zure laguneren zerrendari gehituko zaio.

## > Elkarrizketa bat hastea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Google Talk**.
2. Hautatu kontaktu bat laguneren zerrendan. Elkarrizketa-pantaila irekiko da.
3. Mezua idatzi eta bidali.
  - Elkarrizketara kontaktu gehiago gehitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Add to chat**.
  - Joan ezkerrera edo eskuinera aktibo dagoen elkarrizketa batetik beste batera aldatzeko.
  - Bideo-txata erabiltzeko, hautatu LTD .
  - Ahots-txata erabiltzeko, hautatu .
4. Elkarrizketa amaitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **End chat**.

## ChatON

Ikasi ChatON erabiltzen berehalako mezuek telefonia mugikorreko zenbaki bat duen edoein gailutara bidaltzeko.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **ChatON**.



Aplikazio hau lehen aldiz abiarazi baduzu, jarraitu pantailako argibideei kontua konfiguratzeko.

2. Mezua idatzi eta bidali.

## Mezularitza-zerbitzua

Ikasi lagunen eta senitartekoen berehalako mezuak bidaltzen eta jasotzen Google+ sarearen berehalako mezularitza zerbitzuarekin.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Messenger**.



Aplikazio hau lehen aldiz abiarazi baduzu, jarraitu pantailako argibideei kontua konfiguratzeko.

2. Mezua idatzi eta bidali.

## Google+

Ikasi Googleren sare sozial zerbitzura sartzen. Taldeak sortu ahal izango dituzu berehalako mezuak bidaltzeko eta jasotzeko eta argazkiak kargatzeko.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Google+**.



Aplikazio hau lehen aldiz abiarazi baduzu, jarraitu pantailako argibideei kontua konfiguratzeko.

2. Hautatu sare sozialeko funtzio bat.

# Denbora-pasak

## Kamera


Ikas ezazu argazkiak eta bideoak egiten eta ikusten. Bereizmen hau duten argazkiak egin eta bideoak graba daitezke: argazkien kasuan, 3.264 × 2.448 pixel artekoak (8 megapixel), eta, bideoen kasuan, 1.920 × 1.080 pixel artekoak.







- Kamera automatikoki itzaltzen da denbora jakin batean erabiltzen ez bada.
- Memoriaren gaitasuna hartu nahi den irudiaren edo kondizioen arabera izango da.

### > Argazkiak egitea


1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kamera**.
2. Jarri kameraren objektiboa argazkia egin nahi diozun horri begira, eta egin beharrezko doikuntzak.





Zenbakia	Funtzioa
<b>1</b>	Kamerako doikuntzak aldatzeko.
<b>2</b>	Egindako argazkiak ikusteko.
<b>3</b>	Argazki bat egiteko.
<b>4</b>	<p>Kamerarako lasterbideak erabiltzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li> : Fokatzeko modua aldatzeko.</li> <li> : Argazkia egiteko modua aldatzeko. ► 72. or.</li> <li> : Flasharen konfigurazioa aldatzeko. Flasha eskuz piztu edo itzali daiteke, edo kamera konfiguratu daiteke flasha beharrezkoa denean erabiltzeko.</li> <li> : Aurreko kamerara aldatzeko, zeure buruari argazkia egiteko.</li> </ul> <p>Askotan erabiltzen dituzun aukeratarako lasterbideak gehitu edo kendu ditzakezu. ► 78. or.</p>
<b>5</b>	Biltegiratze-tokia ikusteko.
<b>6</b>	Bideokamera modura aldatzeko.



Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak. Volumen teklarekin ere eragin diezaiokezu zoomari. Baliteke zoom funtzioa ez egotea erabilgarri bereizmen handiena erabiltzen duzunean.

- Saka ezazu fokuratu nahi duzun tokian, aurretiko bistaren pantailan. Fokuratze-markoa sakatu duzun tokirantz mugituko da, eta subjektua fokuratuta dagoenean berde jarriko da.
- Hautatu  argazki bat egiteko. Argazkia automatikoki gordetzen da.

Argazkiak atera ondoren, hautatu irudien bisorea argazkiak ikusteko.

- Joan ezkerretara edo eskuinetara argazki gehiago ikusteko.
- Zooma handitzeko eta txikitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereizi eta elkartu itzazu. Hasiera tamainara itzultzeko, bitan ukitu pantaila.
- Argazkia beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu .
- Diapositiba-aurkezpen bat abiarazteko, hautatu  → **Hasi diaporama**. Ukitu pantailan diapositiba-aurkezpena eteteko.
- Argazki bat ezabatzeko, hautatu .
- Argazkiko aurpegiak aurpegi-etiketa moduan gordetzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Aurpegi-etiketa**. ► 83. or.
- Argazkia arbelera gehitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Kopiatu arbelera**.
- Argazkia ezkerretara biratzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Ezkerrera biratu**.
- Argazkia eskuinetara biratzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Eskuinera biratu**.
- Argazkiaren zati bat erazteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Moztu**.
- Argazkia irudi-editorearekin editatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Editatu**.
- Argazkia pantaila-atzealde gisa ipintzeko nahiz kontaktu bati esleitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Honela zehaztu**.
- Argazkia bidaltzeko aurpegia bertan etiketatuta daukan pertsona bati, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Lagun argazkiak partekatzea**.
- Argazkia WiFi edo USB bidez inprimatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Inprimatu**. Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
- Fitxategi bati izena aldatzeko, sakatu Aukeren eta hautatu **Berrizendatu**.
- Multimedia fitxategiak partekatzeko aukera gaituta daukaten gailuak bilatzeko, hautatu **Bilatu gertuko gailuak**.
- Argazkiaren xehetasunak ikusteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Xehetasunak**.

## > Argazkia egiteko modua aldatzeko

Argazkiak hainbat esposizio-efektuekin egin ditzakezu. Esposizio-modua aldatzeko, hautatu  → aukera bat.


Aukera	Funtzioa
Jarraikako ateratzea	Mugitzen ari diren gaien argazki-seriea erraz har dezakezu. Argazkiak irudi onenaren aukera gaituta dagoela egitean, hautatu eta gorde ahal izango dituzu.
HDR	Hiru argazki esposizio-balio desberdinez egin eta gero konbinatzeko aukera ematen du, kontraste-koefizientea hobetuzearren.
Irri klisk.	Gailuak pertsonen aurpegia arakatu eta argazkia haiek irribarre egitean egiteko aukera ematen dizu.
Ederra	Aurpegiaren akatsak ezkutatzeko aukera ematen du.
Panorama	Argazki panoramikoak egiteko aukera ematen du.
Marraskia	Animazio-efektuak dituzten argazkiak egiteko aukera ematen dizu.
Partekatu argazkia	Argazkia egin eta WiFi Direct bidez beste lagunei bidaltzeko.
Lagun argazkiak partekatzea	Halako moduan defini daiteke gailua, non zuk argazki bategan etiketatuta daukazu pertsona baten aurpegia ezagutu eta hari bidaltzen dion irudia. Hainbat arrazoiengatik huts egin lezake aurpegia ezagutzeak: angelua, tamaina, azalaren kolorea, aurpegiera, argi-kondizioak, jarriak dituen osagarriak...



## > Kameraren doikuntzak pertsonalizatzea


Argazki bat atera aurretik, hautatu  aukera hauek ikusteko:

Aukera	Funtzioa
Editatu lasterbideak	Sarri erabiltzen diren aukeretarako lasterbideak editatzeko.
Autoerretratu	Zeure buruari argazkia egiteko aurreko kamerarekin.
Flasha	Flasharen konfigurazioa aldatzeko. Flasha eskuz piztu edo itzali daiteke, edo kamera konfiguratu daiteke flasha beharrezkoa denean erabiltzeko.
Kliskatze modua	Argazkia egiteko modua aldatzeko. ► 72. or.
Eszena modua	Eszenaren modua aldatzeko.
Irekidura balioa	Esposizio-balioa aldatzeko, hartara argitasuna ere aldatzeko.
Fokatze modua	Fokuratze-modu bat hautatzeko. Lehen planoko argazkiak egiteko, edota kamera pertsona edo aurpegiak automatikoki fokuratu ditzan konfiguratzeko.
Tenporizadorea	Argazkia egin aurretik denbora-tarte jakin bat igarotzea konfiguratzeko.
Efektuak	Efektu bereziak aplikatzeko.
Bereizmena	Bereizmenari buruzko aukera bat hautatzeko.
Zuri-balantzea	Koloreen balantzea argiztapen-kondizioen arabera doitzeko.
ISO	Argitasun-sentsorearen sentikortasuna doitzeko.

Aukera	Funtzioa
Neurketa	Esposizioaren neurketa-mota aukeratzeko.
Kanpoko ikuspena	Pantaila eguzki betean dagoenean kontrastea hobetzeko.
Antivibración	Gailuaren bibrazioak edo mugimenduak eragindako itxura lausoa gutxitzeko balio du.
Kontraste automa- tikoa	Kamera argazkiko eremu argien eta ilunen arteko kontraste-koefizientea automatikoki doitzeko moduan konfiguratzeko.
Gida marrak	Aurrebistaren pantailan gida-sareta bistaratzeko.
Irudi kalitatea	Argazkien kalitate-maila hautatzeko.
GPS etiketa	<p>Kamera argazkien kokapenari buruzko informazioa gordetzeko moduan konfiguratzeko.</p>  <ul style="list-style-type: none"> <li>• GPS seinalea hobeto jasotzeko, ez atera argazkirik seinalea oztopatu dezaketen tokietan edo egoeretan, besteak beste, eraikinen artean, eremu baxuetan edo eguraldi txarra egiten duenean.</li> <li>• Zure kokapena argazkietan ager liteke internetera esekitzean. Halakorik ez gertatzeko, indargabetu GPS etiketaren doikuntza</li> </ul>
Gorde itzultitako gisa	Kamera defintzeko automatikoki irudia biratu dezan aurreko objektiboarekin argazki bat ateratzean.
Memoria	Egiten diren argazkiak memoriako zein kokalekutan gordeko diren hautatzeko.
Berrezarri	Kamerako doikuntzak leheneratzeko.

## > Bideo bat grabatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kamera**.
2. Eraman kontrol lerragarria bideokamera modura aldatzeko.
3. Jarri objektiboa subjektuari begira, eta egin egin beharreko doikuntzak.







Zenbakia	Funtzioa
1	Bideokamerako doikuntzak aldatzeko.
2	Grabatutako bideoak ikusteko.
3	Bideo bat grabatzeko.
4	Bideokamerarako lasterbideak erabiltzeko. <ul style="list-style-type: none"><li>• : Flash-aren konfigurazioko doikuntzak aldatzeko.</li><li>• : Grabatzeko modua aldatzeko (multimedia-mezu bati atxikitzeko edo normal gordetzeko).</li><li>• : Aurreko kamerara aldatzeko, zeure buruaren bideo bat egiteko.</li></ul> Askotan erabiltzen dituzun aukerretarako lasterbideak gehitu edo kendu ditzakezu. ► 78. or.

Zenbakia	Funtzioa
5	Biltegitratze-tokia ikusteko.
6	Kamera-modura igarotzeko.







Zooma handitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereiz itzazu. Zooma txikitzeko, elkartu bi hatzak. Volumen teklarekin ere eragin diezaiokezu zoomari. Baliteke zoom-funtzioa ez egotea erabilgarri bereizmen handiena erabiltzen duzunean.

4. Saka ezazu fokuratu nahi duzun tokian, aurretiko bistaren pantailan. Fokua markoa sakatu duzun tokirantz mugituko da, eta subjektua fokuan dagoenean, berde jarriko da.
5. Hautatu  grabatzen hasteko.
  - Fokua aldatzeko, ukitu pantaila fokuratu nahi duzun puntuan. Pantailaren erdian fokuratzeko, hautatu .
  - Bideo-irudi bat grabaketaren erdian harrapatzeko, hautatu  Funtzio hau ez da ibiliko dar-dararen aurkako funtzioa aktibatuta egonez gero.
6. Hautatu  grabazioa geldiarazteko. Bideoa automatikoki gordetzen da.



Baliteke bideokamerak bideoak zuzen ez grabatzea transferentzia-abiadura baxua duen memoria-txartel bat erabiltzen bada.

Bideoa egin ondoren, hautatu irudien bisorea hura ikusteko.

- Joan ezkerretara edo eskuinetara bideo gehiago ikusteko.
- Bideoa erreproduzitzeko, sakatu .
- Bideoa beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu .
- Diapositiba-aurrezpen bat abiarazteko, hautatu  → **Hasi diaporama**. Ukitu pantailan diapositiba-aurrezpena eteteko.
- Bideoa ezabatzeke, hautatu .
- Fitxategi bati izena aldatzeko, sakatu Aukeren eta hautatu **Berrizendatu**.
- Multimedia fitxategiak partekatzeko aukera gaituta daukaten gailuak bilatzeko, hautatu **Bilatu gertuko gailuak**.
- Bideoaren xehetasunak ikusteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Xehetasunak**.

## > Bideokameraren doikuntzak pertsonalizatzea

Bideo bat grabatu aurretik, hautatu  aukera hauetara sartzeko:

Aukera	Funtzioa
Editatu lasterbideak	Sarri erabiltzen diren aukeretakako lasterbideak editatzeko.
Norberaren grabaketa	Aurreko kamerara aldatzeko, zeure buruari bideo bat egiteko.
Flasha	Flash-aren konfigurazioko doikuntzak aldatzeko.
Grabaketa modua	Grabatzeko modura aldatzeko (multimedia-mezu bati atxikitzeke edo normal gordetzeko).
Irekidura balioa	Esposizio-balioa aldatzeko, hartara argitasuna ere aldatzeko.
Tenporizadorea	Bideokamera bideo bat grabatzen hasi aurretik denbora-tarte jakin bat igarotzea konfiguratzeko.

Aukera	Funtzioa
Efektuak	Efektu bereziak aplikatzeko.
Bereizmena	Bereizmenari buruzko aukera bat hautatzeko.
Zuri-balantzea	Koloreen balantzea argiztapen-kondizioen arabera doitzeko.
Kanpoko ikuspena	Pantaila eguzki betean dagoenean kontrastea hobetzeko.
Dardara murrizketa	Gailuaren bibrazioak edo mugimenduak eragindako itxura lausoa gutxitzeko balio du.
Gida marrak	Aurrebistaren pantailan gida-sareta bistaratzeko.
Bideo kalitatea	Bideoen kalitate-maila hautatzeko.
Gorde itzulitako gisa	Bideokamera defintzeko automatikoki irudia biratu dezan bideo bat aurreko kamerarekin grabatzean.
Memoria	Grabatutako bideoak gordetzeko memoria-kokalekua hautatzeko.
Berrezarri	Bideokameraren doikuntzak berrezartzeko.

## > Lasterbideen ikonoak editatzeko

Askotan erabiltzen dituzun aukerretarako lasterbideak gehitu edo kendu ditzakezu.

1. Aurreko pantailatik atxiki ezazu sakatuta lasterbideen eremua, edo bestela hautatu  → **Edi-tatu lasterbideak.**

2. Sakatuta atxiki aukeren zerrendako ikono bat, eta hurrena lasterbideen eremura arrastatu. Lasterbideak ezabatzeko, sakatuta atxiki ikono bat, eta hurrena aukeren zerrendara arrastatu.
3. Sakatu pantailari aurreko pantailara itzultzeko.

## Bideoak


Ikasi bideo-erreproduzigailua erabiltzen.



- Gailuaren softwareak ez ditu onartzen fitxategi-formatu batzuk.
- Fitxategi batek eskuragarri dagoen memoria baino tamaina handiagoa badu, baliteke erroreren bat izatea hura irekitzen saiatzean.
- Erreproduzioaren kalitatea desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.
- Zifratzea dela eta, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

### > Bideo bat erreproduzitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Bideoak**.
2. Hautatu bideo bat.
3. Erabili tekla hauek erreproduzioa kontrolatzeko:



Zenbakia	Funtzioa
1	Fitxategian aurrera eta atzera egiteko, arrastaka nahiz barrari sakatuta.
2	Bideo-pantailaren proportzioak aldatzeko.
3	Erreprodukzioa berrabiarazteko, aurreko fitxategira joateko (bitan sakatuta) nahiz fitxategi beraren barruan atzera egiteko (sakatuta atxikita)
4	Bolumena doitzeko.
5	Erreprodukzioa gelditzeko; hautatu  erreprodukzioa berriro martxan jartzeko.
6	Bideo-pantailaren neurria txikitzeko. Hasierako tamainara itzultzeko, ukitu pantaila.
7	Hurrengo fitxategira joateko nahiz fitxategi berean aurrera egiteko (sakatuta atxikita).

Erreproduzitzen ari dela, Aukeren tekla sakatuz gero aukera hauek ikusten dira:

- Multimedia fitxategiak partekatzeko aukera gaituta daukaten gailuak bilatzeko, hautatu **Bilatu gertuko gailuak**.
- Bideoa beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Partekatu honen bidez**.
- Bideoa ataletan banatzeko, hautatu **Atal aurrebista**. Atal bat bila dezakezu eta zuzenean puntu hartaraino egin aurrera.
- Bideo-pasarte bat mozteko, hautatu **Kimatu**.
- Audioa Bluetooth aurikular baten bidez entzuteko, hautatu **Bluetooth bidez**. Ez dago aukera hau erabiltzerik aurikular bat gailuaren konektore fisikoari konektatuz gero.
- Bideo-erreproduzigailua halako denbora jakin bat igarota automatikoki itzaltzeko moduan konfiguratzeko, hautatu **Bideoa autom. itzalita**.



- Bideo-erreproduzizailuaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Ezarpenak**.
- Bideo baten xehetasunak ikusteko, hautatu **Xehetasunak**.

## > Bideo-erreproduzizailuaren ezarpenak pertsonalizatzea

1. Erreproduzitzen ari dela, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Ezarpenak**.
2. Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
Brillo del vídeo	Pantailaren argitasuna doitzeko.
Reproducción contínua	Bideo-erreproduzizailuak hurrengo bideoa automatikoki erreproduzitzeko moduan konfiguratzeko.
Erreproduzioaren abiadura	Erreproduzioaren abiadura aldatzeko.
SoundAlive	Soinu-efektua aukeratzeko.
Azpitituluak	Azpititulu-fitxategi baten doikuntzak pertsonalizatzeko.
Kolore tonua	Kolore-tonua hautatzeko.
Kanpoko ikuspena	Pantaila eguzki betean dagoenean kontrastea hobetzeko.

# Galeria

Ikasi gailuan gordetako irudiak eta bideoak ikusten.






- Gailuaren softwareak ez ditu onartzen fitxategi-formatu batzuk.
- Fitxategi batek eskuragarri dagoen memoria baino tamaina handiagoa badu, baliteke erroreren bat izatea hura irekitzen saiatzean.
- Erreproduzioaren kalitatea desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.
- Zifratzea dela eta, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

## > Irudi bat ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Galeria**.
2. Hautatu karpeta bat eta haren barruko → irudi bat.

Argazkia ikusten ari zarela, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Joan ezkerrera edo eskuinera irudi gehiago ikusteko.
- Zooma handitzeko eta txikitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereizi eta elkartu itzazu. Hasiera tamainara itzultzeko, bitan ukitu pantaila.
- Irudia beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu .
- Diapositiba-aurrezpen bat abiarazteko, hautatu  → **Hasi diaporama**. Ukitu pantailan diapositiba-aurrezpena eteteko.
- Irudia ezabatzeko, hautatu .
- Irudiko aurpegiak aurpegi-etiketa moduan gordetzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Aurpegi-etiketa**.
- Irudia arbelera gehitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Kopiatu arbelera**.
- Irudia ezkerretara biratzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Ezkerrera biratu**.
- Irudia eskuinetara biratzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Eskuinera biratu**.

- Irudiaren zati bat erazteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Moztu**.
- Irudia irudi-editorearekin editatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Editatu**.
- Irudia pantaila-atzealde gisa ipintzeko nahiz kontaktu bati esleitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Honela zehaztu**.
- Irudia bidaltzeko aurpegia bertan etiketatuta daukan pertsona bati, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Lagun argazkiak partekatzea**.
- Irudia WiFi edo USB bidez inprimatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Inprimatu**. Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
- Fitxategi bati izena aldatzeko, sakatu Aukeren eta hautatu **Berrizendatu**.
- Multimedia fitxategiak partekatzeko aukera gaituta daukaten gailuak bilatzeko, hautatu **Bilatu gertuko gailuak**.
- Irudiaren xehetasunak ikusteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Xehetasunak**.



Eskuragarri dauden aukerak desberdinak izan daitezke hautatutako karpeta ren

## > Irudi bateko aurpegi bat etiketatzea

Ikasi zure irudietako aurpegiak etiketatzen, hartara, aurpegi-etiketaren lasterbideez baliatuz, deiak egiteko, mezuak bidaltzeko eta sare sozialetako mezuak deskargatzeko.



Hainbat arrazoiengatik huts egin lezake aurpegia ezagutzeak: angelua, tamaina, azalaren kolorea, aurpegiera, argi-kondizioak, jarriak dituen osagarriak...

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Galeria**.
2. Aukeratu irudia.

3. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Aurpegi-etiketa** → **Aktibatuta**  
Hautematen diren aurpegiak argazkian ageri dira. Aurpegi bat ez baldin bada automatikoki hautematen, luzez ukitu aurpegia pantailan, marko bat eskuz gehitzeko.
4. Hautatu hautemandako aurpegietako bat → **Izena gehitu**.
5. Hautatu kontaktuen zerrendan pertsonaren izena. Kontaktua irudiko aurpegiarekin lotuta dago orain.

Aurpegiaren etiketa izen eta guzti ageri denean, hautatu etiketa eta erabili eskura dituzun aukerak.

## > **Bideo bat erreproduzitzea**

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Galeria**.
2. Hautatu karpeta bat → bideo bat (📺 ikurraz adierazia).
3. Hautatu 📺 erreproduzitzen hasteko.
4. Erabili teklak erreprodukzioa gobernatzeko. ▶ 79. or.

Erreproduzitzen ari dela, Aukeren tekla sakatuz gero aukera hauek ikusten dira:

- Multimedia fitxategiak partekatzeko aukera gaituta daukaten gailuak bilatzeko, hautatu **Bilatu gertuko gailuak**.
- Bideoa beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Partekatu honen bidez**.
- Bideoa ataletan banatzeko, hautatu **Atal aurrebista**. Atal bat bila dezakezu eta zuzenean puntu hartara egin aurrera.
- Bideo-pasarte bat mozteko, hautatu **Kimatu**.
- Audioa Bluetooth entzungailu baten bidez entzuteko, hautatu **Bluetooth bidez**. Ez dago aukera hau erabiltzerik entzungailu bat gailuaren konektore fisikoari konektatuz gero.
- Bideo-erreproduzigailua halako denbora jakin bat igarota automatikoki itzaltzeko moduan konfiguratzeko, hautatu **Bideo autom. itzalita**.
- Bideo-erreproduzigailuaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Ezarpenak** .
- Bideo baten xehetasunak ikusteko, hautatu **Xehetasunak**.

# Musika-erreproduzigailua

Ikasi zeure musika gogokoena entzuten mugitzen zaren bitartean.



- Gailuaren softwareak ez ditu onartzen fitxategi-formatu batzuk.
- Fitxategi batek eskuragarri dagoen memoria baino tamaina handiagoa badu, baliteke erroreren bat izatea hura irekitzen saiatzean.
- Erreproduzioaren kalitatea desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.
- Zifratzea dela eta, baliteke fitxategi batzuk ondo erreproduzitzerik ez izatea.

## > Gailuari musika-fitxategiak gehitzea

Hasteko, transferitu fitxategiak gailura edo memoria-txartelera:


- Internetetik deskargatu. ► 102. or.
- Deskargatu PC batetik Samsung Kies-ekin. ► 115. or.
- Deskargatu PC batetik Windows Media Player-ekin. ► 115. or.
- Jaso fitxategiak Bluetooth bidez. ► 129. or.
- Jaso datuak WiFi bidez. ► 120. or.
- Kopiatu fitxategiak memoria-txartel batean.

## > Musika erreproduzitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Musika jogailua**.
2. Hautatu musika-kategoria bat → musika-fitxategi bat.

### 3 Erabili tekla hauek erreproduzioa gobernatzeko:



Zenbakia	Funtzioa
<b>1</b>	Ausazko erreproduzioaren modua aktibatzeko.
<b>2</b>	Fitxategian aurrera eta atzera egiteko, arrastaka nahiz barrari sakatuta.
<b>3</b>	Soinu-efektua aukeratzeko.
<b>4</b>	Erreproduzioa berrabiarazteko, aurreko fitxategira joateko (bi segundoz sakatuta) nahiz fitxategi beraren barruan atzera egiteko (sakatuta atxikita)
<b>5</b>	Bolumena doitzeko.
<b>6</b>	Errepikatze modua aldatzeko.
<b>7</b>	Musika-fitxategiak gogo-aldaretaren nahiz urtearen arabera antolatzeko.
<b>8</b>	Erreproduzioa gelditzeko; hautatu  erreproduzioa berriro martxan jartzeko.
<b>9</b>	Erreproduzio-zerrenda irekitzeko.

Zenbakia	Funtzioa
10	Hurrengo fitxategira joateko nahiz fitxategi berean aurrera egiteko (sakatuta atxikita).



Entzungailu baten bidez kontrola dezakezu musika-erreproduzigailua. Hasierako pantailan, luze sakatu entzungailuaren botoia musika-erreproduzigailua martxan jartzeko. Hurrena, sakatu entzungailuaren botoia erreprodukzioa hasteko edo geldiarazteko.

Erreproduzitzen ari dela, Aukeren tekla sakatuz gero aukera hauek ikusten dira:

- Musika-fitxategiak zerrenda bizkorrera gehitzeko (erreprodukzio-zerrenda gisa gordetzeko), hautatu **Gehitu zerren. azkarrera.**
- Musika Bluetooth entzungailu baten bidez entzuteko, hautatu **Bluetooth bidez.** Ez dago aukera hau erabiltzerik entzungailu bat gailuaren konektore fisikoari konektatuz gero.
- Musika-fitxategia beste pertsona batzuei bidaltzeko, hautatu **Partekatu honen bidez.**
- Musika-fitxategia erreprodukzio-zerrenda batera gehitzeko, hautatu **Erreproduzio zerrendara gehitu.**
- Musika-fitxategi baten xehetasunak ikusteko, hautatu **Xehetasunak.**
- Musika-fitxategia dei-tonu gisa konfiguratzeko, hautatu **Honela zehaztu.**
- Musika-erreproduzigailuaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Ezarpenak.**
- Erreprodukzioa eteteko eta musika-erreproduzigailua ixteko, hautatu **Amaitu.**

### > Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Musika Jogailua** → **Erreproduzio zerrendak.**
2. Sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Erreproduzio zerrenda sortu.**
3. Idatzi izenburu bat erreprodukzio-zerrenda berriarentzat, eta hautatu **Onartu.**
4. Hautatu **Gehitu musika.**
5. Hautatu gehitu beharreko fitxategiak eta hautatu **Amaitu.**

## > Musika-erreproduzigailuaren ezarpenak pertsonalizatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Musika Jogailua**.
2. Sakatu **Aukeren** tekla, eta hautatu **Ezarpenak**.
3. Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
SoundAlive	Soinu-efektua aukeratzeko.
Erreproduzioaren abiadura	Erreproduzioaren abiadura aldatzeko.
Musikaren menua	Musika-liburutegiaren pantailan agertuko diren musika-kategoriak hautatzeko.
Hitzak	Abestiaren letra bistaratzeko erreproduzitu bitartean.
Musika automatikoa itzalita	Musika-erreproduzigailua konfiguratzeko automatikoki itzal dadin denbora jakin bat igaro ondoren.

## Music Hub

On line musika-dendara sar zaitezke eta han zure abesti gogokoenak bilatu eta erosi. Musika-fitxategiak desio-zerrendara gehitu ere egin ditzakezu, eta bertatik entzun.



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Baliteke funtzio hau erabiltzeko aplikazioa Internetetik deskargatu behar izatea.



1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Music Hub**.
2. Bilatu, ikusi eta erosi zure gogoko abestiak.

## FM irratia

Ikas ezazu FM irratan musika eta berriak entzuten. FM irratia entzuteko, entzungailua konektatu behar da, irrati-antena gisa funtzionatzen baitu.

### > FM irratia entzutea

1. Konektatu entzungailu bat gailuan.
2. Aplikazio-zerrendan, hautatu **FM Irratia**.  
FM irratiak automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.






FM irratia lehen aldiz pizten duzunean, sintonizazio automatikoa hasiko da.

3. Hautatu irrati-kate bat.
4. Erabili tekla hauek FM irratia gobernatzeko:




Zenbakia	Funtzioa
<b>1</b>	FM irratitik abestiak grabatzeko.
<b>2</b>	FM irratia pizteko edo itzaltzeko.
<b>3</b>	Eskura dagoen irrati-kate bat bilatzeko.
<b>4</b>	Uneko irrati-katea gogokoen zerrendara gehitzeko.
<b>5</b>	Bolumena doitzeko.
<b>6</b>	Uneko irrati-katearen zerbitzuetarako sarbidea ematen du, hala nola musika-fitxategiak deskargatzeko edo irrati-katera deitzeko. Baliteke aukera hori eskura ez egotea, une horretan zauden herrialdearen arabera.
<b>7</b>	Maiztasuna sintonizatzen.



### > FM irratitik abestiak grabatzeko.

1. Konektatu entzungailu bat gailuan.
2. Aplikazio-zerrendan, hautatu **FM Irratia**.
3. Hautatu  FM irratia pizteko.
4. Zoaz irrati-kate batera.
5. Hautatu  grabatzen hasteko.
6. Amaitzen duzunean, hautatu  .  
Grabatutako fitxategia hemen gordeko da: **Nire Fitxategiak** → **sdcad** → **Sounds**.

### > Irrati-kateak automatikoki gordetzeko

1. Konektatu entzungailu bat gailuan.
2. Aplikazio-zerrendan, hautatu **FM Irratia**.
3. Hautatu  FM irratia pizteko.
4. Sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Bilatu** → aukera bat. FM irratia automatikoki bilatzen eta gordetzen ditu eskuragarri dauden irrati-kateak.

## > Irrati-kate bat gogokoenen zerrendara gehitzea

1. Konektatu entzungailu bat gailuan.
2. Aplikazio-zerrendan, hautatu **FM Irratia**.
3. Hautatu  FM irratia pizteko.
4. Zoaz irradi-kate batera.
5. Hautatu  irradi-katea gogokoenen zerrendara gehitzeko.

## > FM irradiaren ezarpenak pertsonalizatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **FM Irratia**.
2. Sakatu **Aukeren** tekla, eta hautatu **Ezarpenak**.
3. Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
Memoria	Irrati-klipak gordetzeko memoria-kokalekua hautatzeko balio du.
Irratiaren testua	FM irradiaren pantailan irradi-katearen IDa bistaratzeko. Beren IDa ematen duten irradi-kateen IDak soilik daude eskuragarri.
Frekuentzia alternatiboa	Irrati-kateen seinaleak ahultzen direnean maiztasuna berriz automatikoki sintonizatzeko.
FM automatikoa itzalita	Denbora-tarte jakin bat igaro ondoren FM irratia automatikoki desaktibatzea zehazteko.


# Informazio pertsonala

## Kontaktuak

Ikasi zure kontaktu pertsonalen nahiz laneko kontaktuen zerrenda bat sortzen eta administratzen.

Aukera izango duzu izenak, telefono-zenbakiak, helbide elektronikoak eta kontaktuei buruzko informazio gehiago gordetzeko.

### > Kontaktu bat sortzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak** → .
2. Hautatu memoriako atal bat.
3. Idatzi kontaktuaren informazioa.
4. Hautatu **Gorde** kontaktua memoriara gehitzeko.



Markatze-pantailatik sor ditzakezu kontaktuak, **Kontaktuetara gehitu** hautatuta.

### > Kontaktu bat bilatzea







1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Mugitu gora edo behera kontaktuen zerrendan.



Kontaktu bati deitu edo mezu bat bidal diezaiokezu, kontaktuaren izenean ezkerrera edo eskuinera mugituz.

3. Hautatu kontaktu baten izena.

Kontaktuen ikuspegian, erabili aukera hauek:

- Ahots-dei bat egiteko, hautatu .
- Bideo-dei bat egiteko, hautatu .
- Testu- edo multimedia-mezu bat bidaltzeko, hautatu .
- Mezu elektronikoa bat igortzeko, hautatu .
- Gogoko zenbaki bat zehazteko, hautatu .
- kontaktu baten informazioa editatzeko, hautatu .


## > Bizkor markatzeko zenbaki bat zehaztea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Aukeren tekla sakatu, eta hautatu **Markaketa bizkorraren ezarpenak**.
3. Hautatu kokaleku-zenbaki bat → kontaktu bat.



Bizkor markatzeko zenbakira dei dezakezu markatze-pantailako kokaleku-zenbakian luze sakatuta.

## > Bisita-txartela sortzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Hautatu zeure izena lagun-zerrendaren goiko aldean.
3. Hautatu .
4. Idatzi zure informazio pertsonala, eta hautatu **Gorde**.



Zure bisita-txartela bidal edo beste batzuekin parteka dezakezu Aukeren tekla sakatuta eta **Partekatu txartelaren izena** hautatuta.

## > **Kontaktu-talde bat sortzea**

Kontaktu-taldeak sortzen badituzu, aukera izango duzu zenbait kontaktu kudeatzeko eta mezuak talde oso bati bidaltzeko.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Taldeak**.
2. Sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Sortu**.
3. Sartu izen bat, eta personalizatu taldearentzako ezarpenak.
4. Gehitu kideak taldeari.
5. Hautatu **Gorde**.

## > **Kontaktu bat kopiatzea**

### **SIM edo USIM txarteleko kontaktuak zure gailura kopiatzeko:**

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Inportatu/esportatu** → **Inportatu SIM txarteletik**.
3. Hautatu memoriako atal bat.
4. Hautatu kopiatu nahi dituzun kontaktuak, eta aukeratu **Egina**.

### **Zure gailuko kontaktuak SIM edo USIM txartelera kopiatzeko:**

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Inportatu/esportatu** → **Esportatu SIM txartelera**.
3. Hautatu kopiatu nahi dituzun kontaktuak eta sakatu **Egina** → **Ados**.

## > **Kontaktuak inportatzea edo esportatzea**

Kontaktu-fitxategiak inportatzeko edo esportatzeko (vcf formatuan) memoria-txartelera edo zure gailuaren USB biltegitratze-txartelera, nahiz memoria-txarteletik edo zure gailuaren USB biltegitratze-txarteletik:

### **Kontaktu-fitxategiak inportatzea**

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Sakatu Opciones tekla eta hautatu **Inportatu/esportatu** → **Inportatu SD txarteletik edo inportatu USB memoriatik**.
3. Hautatu memoriako atal bat.
4. Hautatu kontaktu-fitxategi bakarra, fitxategi bat baino gehiago edo fitxategi guztiak inportatzeko aukera bat, eta gero hautatu **OK**.
5. Hautatu inportatu nahi dituzun kontaktu-fitxategiak, eta hautatu **OK**.

### **Kontaktuak esportatzea**

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Kontaktuak** → **Kontaktuak**.
2. Sakatu Opciones tekla eta hautatu **Inportatu/esportatu** → **Esportatu SD txartelera edo Esportatu USB memoriara**.
3. Sakatu **OK** baieztatzeko.


## **Egutegia**

Gailuak agenda ahaltsu bat du, zure ordutegiak hobeto antolatzen laguntzeko. Ikas ezazu gertaerak eta zereginak sortzen eta kudeatzen, eta ezarri gertaera eta zeregin garrantzitsuak gogorarazteko alarmak.

## > **Gertaera edo zeregin bat sortzea**

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S planifikagailua**.
2. Hautatu **+**.
3. Hautatu gertaera mota bat pantailaren goiko aldean.
4. Idatzi gertaeraren xehetasunak, eta hautatu **Gorde**.

## > Bistaratzeko modua aldatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S planifikagailua**.
2. Hautatu 
3. Bistaratzeko modua hautatu.
  - **Urtea:** Urteko hil guztiak ikus daitezke
  - **Hilabetea:** Begirada batean hil osoa ikus daiteke
  - **Astea:** aste osoko egunetako ordu-blokeak
  - **Eguna:** Egun bateko ordu-bloke guztiak ikus daitezke.
  - **Zerrenda:** Aldi jakin baterako programatutako gertaera eta zeregin guztien zerrenda ikus daiteke.
  - **Ataza:** Zereginen zerrenda ikusteko balio du.



Bistaratzeko modua aldatzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereizi eta elkartu itzazu.

## > Gertaera edo zeregin bat ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S planifikagailua**.
2. Hautatu data bat egutegian.
  - Egun jakin batera joateko, sakatu Aukeren, hautatu **Hona joan** eta sartu eguna.
  - Uneko datara joateko, sakatu **Gaur**.
3. Hautatu ekitaldi bat xehetasunak ikusteko.



Gertaera beste batzuei bidal diezaiekezu edo partekatu egin dezakezu Aukeren tekla sakatuta eta **Partekatu honen bidez** hautatuta.



## > Gertaera edo zeregin bat jakinarazteko alarma geraraztea

Gertaera edo zeregin baten oroigarri bat zehazten baduzu, alarmak joko du zuk zehaztutako orduan.

1. Jakinarazpen-panela irekitzeko, ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz.
2. Hautatu gertaeraren jakinarazpena.
3. Hautatu gertaera bat xehetasunak ikusteko.  
Gertaeraren alarmak berriro jotzeko, hautatu **Errepikatu**.

## S Memo



S Memorekin, eduki aberastua duten oharrak sor daitezke, zirriborroak marraztuta edo irudiak edo ahots-oharrak gehituta.

### > Ohar bat sortzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S Oroigarria**.



Aplikazio hau lehenengo aldiz abiarazten ari bazara, zure Samsungeko kontuan saioa hastean, hautatu kokapen bat oharrak sinkronizatzeko.

2. Hautatu  pantailan idazteko edo marrazkiak egiteko edo hautatu  testua teklatuarekin idazteko.
3. Hautatu **Izenburua idatzi**, sartu titulu bat oharrarentzat, eta hautatu **Onartu**.

4. Idatzi ohar bat edo egin zirriborro bat tresna hauekin:

Tresna	Funtzioa
	Oharra aztertzeko aukera ematen du.
	Zirriborro bat marrazteko; boligrafoaren ezarpenak aldatzeko (bi aldiz sakatuta).
	Teklatuarekin idazteko.
	Testua edo zirriborroa ezabatzeko; borragomaren lodiera aldatzeko edo sartutakoa ezabatzeko (bi aldiz sakatuta).
	Azken ekintza ezabatzeko.
	Azken ekintza berriz egiteko.
	Ahotsak edo bestelako soinuak grabatuta dituen soinu-fitxategi bat gehitzeko.
	Oharrari beste orri bat gehitzeko.

5. Hautatu **Gorde**.






Eskuz idatzitakoa testu bihurtzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Eskuz idatzitakoa testu bihurtu**. Oharra hizkuntza batean baino gehiagotan idatzita badago edo zenbakiak eta letrak nahasian baditu, testura bihurtzeak huts egin dezake.

## > Ohar bat ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S Oroigarria**.
2. Hautatu ohar bat xehetasunak ikusteko.

Oharra ikusten ari zarela, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Joan ezkerrera edo eskuinera ohar gehiago ikusteko.
- Oharra editatzeko, ukitu pantaila edo hautatu .
- Oharra ezabatzeko, hautatu .
- Mezua garrantzitsu gisa markatzeko, hautatu .
- Ohar bat bidaltzeko edo partekatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Partekatu honen bidez**.
- Oharra PDF fitxategi gisa edo irudi gisa esportatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu Exportar. Esportatutako fitxategia hemen gordeko da: **Nire fitxategiak** → **sdcard** → **S Memo**.
- Oharra Google Docs-ekin edo Evernote-rekin sinkronizatzeko, sakatu Opciones tekla eta hautatu **Sync**.
- Oharra nahi gabe ez ezabatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Blokeatu**.
- Argazkia pantaila-atzealde gisa ipintzeko nahiz kontaktu bati esleitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Honela zehaztu**.
- Argazkia WiFi edo USB bidez inprimatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Inprimatu**. Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.




## > Oharrak karpetaan antolatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S Oroigarria**.
2. Sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Karpeta sortu**
3. Sartu karpeta izena, eta hautatu **Onartu**.
4. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Mugitu** edo **Kopiatu**.
5. Hautatu Notas eta hautatu **Amaituta**.
6. Hautatu karpeta berria, eta hautatu **Hemen erantsi**.




# Ahots-grabagailua

Ikas ezazu zure gailuaren ahots-grabagailua erabiltzen.

## > Ahots-ohar bat grabatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ahots Grabagailua**.
2. Hautatu  grabatzen hasteko. Grabazioa une batez eteteko, sakatu .
3. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
4. Amaitutakoan, aukeratu .  
Ahots-oharra automatikoki gordeko da.


## > Ahots-ohar bat erreproduzitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ahots Grabagailua**.
2. Hautatu  ahots-oharren zerrendara sartzeko.
3. Hautatu ahots-ohar bat. Grabazioa une batez eteteko, sakatu .
4. Hautatu  erreprodukzioa eteteko.



Ahots-oharra beste batzuei bidal diezaikezu edo partekatu egin dezakezu, Aukeren tekla sakatuta eta **Partekatu honen bidez** hautatuta.

## > Ahots-erreproduzitailearen ezarpenak pertsonalizatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ahots Grabagailua** → .
2. Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
Biltegitratzea	Ahots-oharrak gordetzeko memoria-kokalekua hautatzeko balio du.
Lehenetsitako izena	Aurrezenbaki bat sartzeko balio du, ahots-oharrei izena jartzeko.
Grabaketa kalitatea	Ahots-oharren kalitate-maila hautatzeko balio du.
MMSentzako muga	Grabaketak multimedia-mezu batean sartzeko gehienezko iraupenera mugatzeko balio du.

# Web-zerbitzuak eta GPSa



Gerta daiteke Interneteko sarbidea izateagatik edo multimedia-fitxategiak deskargatzeagatik kostu gehigarriak izatea. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Internet

Ikas ezazu webguneetara sartzen eta gogokoei gehitzen.



- Baliteke funtzio horrek beste izen bat edukitzea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Eskuragarri dauden ikonoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

### > Webgune batean nabigatzea


1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Internet**.
2. Webgune jakin batera sartzeko, hautatu URL eremua, idatzi webgunearen helbidea, eta hautatu **Egina**.
3. Erabili tekla hauek webguneetan nabigatzeko:



Zenbakia	Funtzioa
1	Webgune hau berriz kargatzeko. Gailuak webguneak kargatu bitartean, ikur hau aldatu, eta ✕ agertuko da.
2	Webguneko xehetasunak ikusteko.
3	Webgunearen helbidea edo gako-hitza sartzeko.
4	Gogokoak, gordetako webguneak eta Interneteko historiaren azken webguneak ikusteko.
5	Nabigatzailearen leiho aktiboen miniaturak ikusteko.

Webgune batean nabigatu bitartean, aukera hauek erabil ditzakezu:


- Zooma handitzeko eta txikitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereizi eta elkartu itzazu. Hasierako tamainara itzultzeko, bitan ukitu pantaila. Litekeena da webgune batzuetan funtzio hau erabilgarri ez egotea.
- Historiaren webguneetan aurrera edo atzera egiteko, sakatu Atrás tekla, edo sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Birbidali**.
- Leiho berri bat irekitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Leiho berria**.
- Uneko webgunea gogoko gisa markatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Laster-marka gehitu**.
- Uneko webgunearen lasterbidea gehitzeko pantaila nagusian, sakatu Aukeren tekla eta hautatu Añadir acceso directo a pantalla de inicio.
- Webgunearen helbide bat bidaltzeko edo partekatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Partekatu orria**.
- Webgune batean testua bilatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Aurkitu orrian**.
- Mahaigainaren bistaratzea aldatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Mahai gainaren ikuspegia**.

- Uneko webgunea gorde nahi baduzu eta konexiorik gabe kontsultatzeko moduan utzi, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Gorde lineaz kanpo irakurtzeko**. Gordetako webguneak  → **Gord. orr.** hautatuta ikus ditzakezu.
- Argitasuna eta kolorea doitzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Argitasuna**.
- Deskargen historia ikusteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Deskargak**.
- Webgunea WiFi edo USB bidez inprimatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Inprimatu**. Zure gailua Samsung inprimagailu batzuekin soilik da bateragarria.
- Nabigatzailearen doikuntzak aldatzeko, sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Ezarpenak**.

## > Informazioa ahotsaren bidez bilatzea



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Internet**.
2. Hautatu URL eremua.
3. Hautatu , eta esan gako-hitz bat gailuaren mikrofonoan.  
Gailuak gako-hitzarekin loturiko webguneak bilatuko ditu.
4. Hautatu bilaketaren emaitza bat.

## > Webgune bat gogoko gisa markatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Internet**.
2. Sartu webgunearen helbidea edo nabigatu webgune batera.
3. Sakatu Aukeren eta hautatu **Laster-marka gehitu**.
4. Sartu izen bat gogoko elementuarentzat eta hautatu **Gorde**.



Gogokoen zerrenda ikusteko, hautatu  → **Lastermarkak**. Gogokoen zerrendan, luze sakatu gogoko helbidea, eta erabili aukera hauek:

- Webgunea uneko leihoan irekitzeko, hautatu **Ireki**.
- Leiho berri bat irekitzeko, hautatu **Ireki lehiu berrian**.
- Gogokoaren xehetasunak aldatzeko, hautatu **Laster-marka editatu**.
- Pantaila nagusiari zuzenean sarbidea gehitzeko, hautatu **Gehitu lasterbidea hasierako pantailara**.
- Uneko webgunearen helbidea beste pertsona batzuei gehitzeko, hautatu **Partekatu esteka**.
- Uneko webgunearen helbidea kopiatzeko, hautatu **Kopiatu URL es**.
- Elementu gogokoa ezabatzeko, hautatu **Ezabatu lastermarka**.
- Webgunea nabigatzailearen hasierako orri gisa definitzeko, hautatu **Ezarri abiaorri gisa**.

## > Interneteko fitxategi bat deskargatzea

Interneteko fitxategiak edo aplikazioak deskargatzean, gailuak barne-memorian gordeko ditu.




Baliteke Internetetik deskargatutako fitxategiek gailua kaltetu dezaketen birusak edukitzea. Arriskua murrizteko, iturri fidagarrietako fitxategiak bakarrik deskargatu.



Multimedia-fitxategi batzuek eskubide digitalen administrazioa dute (Digital Rights Management), jabetza intelektualeko eskubideak babesteko. Litekeena da babes horrek ez uztea artxibo batzuk deskargatzen, kopiatzen, aldatzen edo transferitzen.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Internet**.
2. Bilatu fitxategi bat edo aplikazio bat, eta deskargatu gailura.

## > Historiaren azken webguneak ikustea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Internet** →  → **Historia**.
2. Hautatu webgune bat, hara sartzeko.

## Flipboard

Ikas ezazu zure albiste-aldizkari pertsonalizatura sartzen.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Flipboard**.
2. Hautatu **Get Started**.



Zure Flipboard kontuan saioa hasten baduzu, zure sare sozialetako albisteak jaso ahal izango dituzu.

3. Hautatu gaiak, eta gero sakatu **Done**.
4. Mugitu albiste-artikuluaren zerrendan.

## Game Hub

Jokoetara sartzeko balio du.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Game Hub**.
2. Hautatu jokoaren zerbitzari bat.
3. Bilatu jokoak eta sartu haietara.




Eskuragarri dauden jokoak aldatu egin daitezke zerbitzu-hornitzailearen edo zu zauden eremuaren arabera.

## Latitude

Ikas ezazu zure kokapena zure lagunekin partekatzen eta zure lagunen kokapena ikusten Google Latitude®-ren kokapen-zerbitzuarekin.

Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Latitude**.  
Gailuak automatikoki bat egingo du Latituderekin.
2. Hautatu  → aukera bat.
3. Hautatu lagun bat edo sartu posta elektronikoko helbide bat, eta hautatu **Add friends**.
4. Hautatu **Yes**.  
Zure lagunek gonbidapena onartzen dutenean, kokapenak partekatu ahal izango dituzu haiekin.
5. Hautatu **MAP VIEW**.  
Zure lagunen kokapena eta haien argazkiak agertuko dira mapan.




## Mapak

Ikas ezazu Google Maps®-en mapa-zerbitzua erabiltzen zure kokapena edo beste leku batzuk bilatzeko eta argibideak eskuratzeko.





- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Kokapen-zerbitzuak aktibatu behar dituzu zurea aurkitu eta mapan bilatzeko. 129. or.



## > Kokapen bat bilatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Maps**. Zure uneko kokapena erakutsiko dizu **mapak**.
2. Hautatu .
3. Sartu gako-hitza eta hautatu . Kokapen bat ahotsaren bidez bilatzeko, hautatu .
4. Hautatu kokapen bat xehetasunak ikusteko.

Mapa ikusten ari zarela, aukera hauek erabil ditzakezu:

- Zooma handitzeko eta txikitzeko, jarri bi hatz pantailan, eta poliki bereizi eta elkartu itzazu.
- Bilaketaren emaitza guztiak ikusteko, hautatu **Directions list**.
- Zure uneko kokapena ikusteko, sakatu . Gailua mugitzean orientazioa aldatzen duen iparrorratzaren bistaratzerara aldatzeko mapa, hautatu .
- Kokapenari izar bat gehitzeko, hautatu kokapenaren izena duen puxika → ★
- Mapari informazio-geruzak gehitzeko edo bistaratze-modua aldatzeko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Layers**.

## > Helmuga jakin baten helbidea lortzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Maps**.
2. Hautatu .
3. Idatzi hasierako kokapenaren eta amaierako kokapenaren helbideak. Kontaktuzerrendako helbide bat edo gogoko tokiak sartzeko, edo mapan toki bat hautatzeko, aukeratu  → aukera bat.

4. Hautatu ezazu bidaiatzeko modu bat eta aukeratu GET DIRECTIONS.  
Mapan adierazten da bidea. Hautatzen den bidai-metodoaren arabera, baliteke bide bat baino gehiago ikustea.
5. Amaitutakoan, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **Clear Map**.

## Zerbitzu gehiago

Zerbitzu gehiago dituzu zure gailuan aplikazio gehigarriak deskargatzeko eta instalatzeko. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Zerbitzu gehiago**.

## Nabigazioa

Zure helmugara iristeko behar duzun informazioa ahots bidez jasotzeko.



- Baliteke nabigazio-mapak, zure uneko kokapena eta beste nabigazio-datu batzuk ez etortzea bat informazio errealarekin. Arreta jarri behar diezu beti ibilbidearen kondizioei, zirkulazioari eta bidaiari eragin liezaiokeen beste edozein faktoreri, eta segurtasun-ohar eta -arau guztiei jarraitu behar diezu gidatzen ari zaren bitartean.
  - Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Navigation**.
  2. Sartu zure helmuga metodo hauen bidez.
    - Ahots bidez sar daiteke.
    - Teklatu birtualarekin sar daiteke.
    - Zure kontaktuen helbideetatik hauta dezakezu.
    - Leku gogokoen zerrendan hauta dezakezu.
  3. Instalatu beharrezko softwarea eta erabili nabigazio-funtzioak.

## Lekuak

Dendak eta aisia-zentroak bilatzeko.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberak.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Local**.
2. Kokapen jakin batetik hurbil dauden dendak edo aisia-zentroak bilatu nahi badituzu, hautatu zure kokapena → **Enter an address**.
3. Hautatu kategoria bat.  
Gailuak kategoria horrekin lotutako hurbileko tokiak bilatuko ditu.
4. Hautatu leku baten izena, xehetasunak ikusteko.



Kategoria gehiago gehi ditzakezu Aukeren tekla sakatuta eta **Add a search** hautatuta.

## Play Books

Bilatu eta deskargatu liburu-fitxategiak Google Play Books-ekin. Liburu-fitxategiak irakurri ahal izango dituzu gailuan. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Play Books**.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberak.

## Play Films

Filmak bilatu eta alokatu Google Play Movies-ekin. Filmak ikusi ahal izango dituzu gailuan. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Play Films**.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## Play Store

Zure gailuak funtzio gehiago ere izan ditzake, aplikazio gehigarriak instalatuta. Play Storeri esker, erraz eta azkar eros ditzakezu aplikazio mugikorrak.



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Barne-memorian deskargatutako aplikazioen erabiltzaile-fitxategiak gordeko ditu zure gailuak.

### > Aplikazio bat deskargatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Play Store**.
2. Bilatu aplikazio bat, eta deskargatu gailuan. Deskarga amaitutakoan, gailuak automatikoki instalatuko du aplikazioa.

### > Aplikazio bat desinstalatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Play Store**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **My apps**.
3. Hautatu elementu bat.
4. Hautatu **Uninstall** → **OK**.

## Samsung Apps

Samsung Appsek aukera ematen dizu gailuarentzako aplikazio eta eguneratze sorta zabala deskargatzeko. Gailua adimentsuagoa izango da Samsung Apps-en aplikazio guztiz optimizatuekin. Bila itzazu aplikazio erabilgarriak, eta hobetu zure bizitza mugikorra.

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Samsung Apps**.
2. Bilatu aplikazio bat, eta deskargatu gailuan.



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Xehetasun gehiago izateko, ikus [www.samsungapps.com](http://www.samsungapps.com) edo kontsultatu Samsung Apps-en liburuxka.

## S Suggest

Bilatu eta deskargatu Samsungek proposatzen dizkizun aplikazio berrienak. Aplikazio-zerrendan, hautatu **S Suggest**.



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## YouTube

Ikasi bideoak ikusten eta kargatzen, YouTube®-ren bideo partekatuen zerbitzuaren bidez.




- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.





## > Bideo bat erreproduzitzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu YouTube.
2. Hautatu bideo bat.
3. Biratu gailua ezkerrera ikuspegi horizontala eskuratzeko.
4. Erabili tekla hauek erreproduzioa gobernatzeko:



Zenbakia	Funtzioa
1	Erreproduzioa gelditzeko edo berrabiarazteko.
2	Fitxategian aurrera eta atzera egiteko, barra arrastaka eramanez.
3	Bideoaren kalitatea kontrolatzeko. Litekeena da bideo batzuetan funtzio hau erabilgarri ez egotea.
4	Bideoa erreproduzio-zerrenda batera gehitzeko
5	URLa beste pertsona batzuei bidaltzeko.
6	Bideoak bilatzeko.
7	Biratu pantaila ikuspegi bertikala izateko.

## > Bideo bat kargatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **YouTube**.
2. Hautatu **ACCOUNT**.  
Bideo bat graba eta karga dezakezu  hautatuta.
3. Hautatu zure Google kontua YouTubera lotuta badago. **Kontua gehitu** ere hauta dezakezu, eta kontu bat konfiguratu YouTuben saioa hasteko.
4. Hautatu  → bideo bat.



Lehen aldiz ari bazara bideo bat grabatzen, hautatu sare mota bat bideo bat kargatzeko.

5. Idatzi kargatzearen xehetasunak, eta hautatu Subir.

## Video Hub

Bideoetara sartzeko balio du.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Video Hub**.
2. Hautatu kategoria bat.
3. Bilatu bideoak eta sartu horietara.

# Konektagarritasuna

## USB konexioak

Ikas ezazu gailua ordenagailu batera konektatzen USB kable bat erabiliz.



Ez deskonektatu USB kablea ordenagailutik, gailua datuak transferitzen edo datuetara sartzen ari den bitartean. Hala eginez gero, baliteke datuak galtzea edo gailuak kalteak izatea.



Emaitza hobeak lortzeko, konektatu USB kablea zuzenean ordenagailuaren USB ataka batera. USB hub bat erabiltzen baduzu, litekeena datu-transferentziak huts egitea.

### > Samsung Kiesekin konektatzea

Egiaztatu Samsung Kies ordenagailuan instalatua duzula. Samsungen webgunetik deskargatu dezakezu programa.



Samsung Kiesek Windows eta Macintosh ordenagailuekin funtzionatzen du.

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez. Samsung Kies automatikoki abiaraziko da ordenagailuan. Samsung Kies ez bada abiatzen, egin klik bi aldiz zure ordenagailuko Samsung Kiesen ikonoan.
2. Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung Kiesen laguntza.

### > Windows Mediaren erreproduzitzailearekin konektatzea

Egiaztatu zure ordenagailuan Windows Media erreproduzitzailea instalatuta daukazula.

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
2. Ireki **Windows Media Player**, musika-fitxategiak sinkronizatzeko.

## > Multimedia-gailu gisa konektatzea

Gailua ordenagailu batera konekta dezakezu, eta han gordetako multimedia-fitxategietara sar zaitezke.

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
2. Jakinarazpen-panela irekitzeko, ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz.
3. Hautatu **Multimedia gailu gisa konektatuta** → **Multimedia gailua (MTP)**.
4. Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

## > Kamera-gailu gisa konektatzea

Gailua kamera gisa konekta dezakezu ordenagailu batera, eta gailuko fitxategiak eskuratu ditzakezu.



Erabili USB konexioaren modu hori, ordenagailua ez bada bateragarria multimedia-transferentziaren protokoloarekin (MTP) edo zure gailuak USB kontrolagailua instalatua ez badu.

1. Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.
2. Jakinarazpen-panela irekitzeko, ukitu ikono adierazleen eremua, eta arrastatu beherantz.
3. Hautatu **Multimedia gailu gisa konektatuta** → **Kamera (PTP)**.
4. Transferitu fitxategiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean.

## WiFi-a

Ikas ezazu gailuaren haririk gabeko sarearen gaitasunak erabiltzen, IEEEren 802.11 estandarrekin bateragarria den tokiko haririk gabeko sarea aktibatzeke eta hari konektatzeko.

Internetera edo sareko beste gailu batzuetara konekta zaitezke sarbide puntu bat edo haririk gabeko sarbide-puntu mugikor bat dagoen edozein tokitan.



Bateratu gabeko maiztasuna erabiltzen du gailuak, eta Europako herrialde guztietan erabiltzeko diseinatuta dago. WLAN sarea mugarik gabe erabil daiteke Europar Batasuneko eraikinen barruan; ezin da erabili, ordea, handik kanpora.

### > WiFi funtzioa aktibatzea

Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak**, eta, ondoren, arrastatu **Wi-Fi** etengailua eskuinerantz.



Wi-Fi funtzioak, bigarren mailan funtzionatzen ari dela, bateria kontsumitzen du. Bateria gordetzeko, behar denean bakarrik aktibatu funtzio hori.

### > WiFi sarbide-puntu bat bilatzea eta hara konektatzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**.  
Gailuak WiFi sarbide-puntuak bilatuko ditu automatikoki.
2. Hautatu sarbide-puntu bat.
3. Sartu sarbide-puntuaren pasahitza (behar izanez gero).
4. Hautatu **Konektatu**.

## > WiFi sarbide-puntu bat eskuz gehitzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi** → **Gehitu Wi-Fi sarea**.
2. Sartu sarbide-puntuaren SSIDa, eta hautatu segurtasun-mota bat.
3. Definitu segurtasun-doikuntzak, hautatutako segurtasun-motaren arabera, eta, ondoren, hautatu **Gorde**.

## > Konfigurazio babestua duten WiFi sarbide-puntu batera konektatzea

WPS botoi edo WPSaren PIN baten bidez konekta zaitezke sarbide-puntu babestu batera. Metodo hori erabiltzeko, haririk gabeko sarbide-puntuak WPS botoi bat izan behar du.

### WPS botoi batekin konektatzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**.
2. Hautatu erabilgarri dagoen WPS sarbide-puntu bat, eta, ondoren, sakatu **Erakutsi aukera aurre-ratuak**.
3. Hautatu **WPS** goitibeherako menua.
4. Hautatu **WPS sakatze-botoia** → **Konektatu**.
5. Sakatu WPS botoia sarbide-puntuan, 2 minuturen barruan.

### WPSaren PIN batekin konektatzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**.
2. Hautatu erabilgarri dagoen WPS sarbide-puntu bat, eta, ondoren, sakatu **Erakutsi aukera aurre-ratuak**.
3. Hautatu **WPS** goitibeherako menua.
4. Hautatu **WPS PIN sarrera**, sarbide-punturako WPSaren PINa sartzeko, edo hautatu **Sartu PINa gailuan**, gailuaren WPSaren PIN bat erabiltzeko.
5. Hautatu **Konektatu**.
6. Sarbide-puntuan, sakatu WPS botoia, edo sartu gailuaren PINa.

## > IP estatikoaren doikuntzak definitzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi**.
2. Hautatu sarbide-puntu bat → **Erakutsi aukera aurreratuak**.
3. Hautatu **IP ezarpenak** goitibeherako zerrendan.
4. Hautatu **Estatikoa**.
5. Ipren doikuntzak aldatzeko balio du.
6. Hautatu **Konektatu**.

## > WiFi-aren doikuntzak pertsonalizatzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Wi-Fi** → **Aurreratu**.
2. Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
Sarearen jakinarazpena	WiFi sare ireki bat erabilgarri dagoenean gailuak jakinarazi diezazun konfiguratzeko
Utzi Wi-Fia piztuta gauean	WiFi funtzioa aktibo ala ez-aktibo atxikitzeko.
Bilatu Internet zerbitzua	Uneko sarbide-puntua erabiliz Interneteko zerbitzuetara sar zaitezkeen begiratzea..
Wi-Fi programagailua	WiFi maiztasun-banda hautatzea.
MAC helbidea	MAC helbidea erakustea..
IP helbidea	IP helbidea sartzea

## Wi-Fi Direct

Ikas ezazu Wi-Fi Direct funtzioa erabiltzen bi gailu WiFi sare baten bidez konektatzeko, sarbide-puntu baten beharrik gabe.

### > Zure gailua beste gailu batera konektatzea

1. Aplikazioen zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Ezarpen gehiago** → **Wi-Fi Direct**.
2. Arrastatu **Wi-Fi Direct** etengailua eskuinerantz.
3. Hautatu **Arakatu**.
4. Hautatu gailu bat.  
Beste gailuaren jabeak konexioa onartzen duenean, gailuak konektatuta egongo dira.



Aukera duzu gailu batera baino gehiagotara konektatzeko zure gailua eta datuak bidaltzeko **Konexio anitza** hautatuz.

### > Datuak WiFi bidez bidaltzea

1. Hautatu fitxategi bat edo elementu bat dagokion aplikaziotik.
2. Hautatu aukera bat datuak WiFi bidez bidaltzeko.



Baliteke aukera bat hautatzeko metodoa desberdina izatea datu-motaren arabera.

3. Bilatu beste gailu bat eta hura hautatu.

### > Jaso datuak WiFi bidez

Datuak jasotzen dituzunean, automatikoki gordeko dira gailuan. ShareViaWifi karpetan gordetzen dira jasotzen diren datuak.



## AllShare Cast

Ikasi gailua pantaila handi batera konektatzen AllShare Cast motxila bat erabilia, eta gero haren edukia partekatu.



- Baliteke funtzio hau erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Fitxategi batzuek tarteko memoria agor lezakete erreproduzioan zehar, sare-konexioa nolakoa den.
- Energia aurrezteko, desgaitu AllShare Cast funtzioa erabiltzen ez duzunean.
- WiFi maiztasun-tarte bat definitzen baduzu, baliteke AllShare Cast motxilak ez aurkitzea edo haietara ezin konektatu izatea.
- Bideoak edo jokoak telebista batean bistaratzen badituzu, hautatu TB modu egokia ahalik eta esperientzia onenaz gozatzeko AllShare cast-ekin.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak > Ezarpen gehiago > AllShare Cast**



AllShare Cast-en widgeta hasierako pantailara gehitzen baduzu, egoki sartu ahal izango zara funtzio horretara.

2. Arrastatu **AllShare Cast** etengailua eskuinera.

3. Hautatu gailu bat.

Gailuak konektatuta daudela, zure gailuaren pantaila beste pantailan ikus daiteke.

4. Ireki edo erreproduzitu fitxategi bat.

5. Gailuaren teklen bidez gobernatu pantaila.

## AllShare Play


Ikasi AllShare Play zerbitzua erabiltzen, Internetera konektatutako hainbat gailutan gordeta dauden edukiak erreproduzitzeko. AllShare Play-ren bitartez, edozein gailutan gordeta dagoen edozein fitxategi beste gailu edo biltegiratzeko web-zerbitzari batean erreproduzitu nahiz hartara bidal dezakezu.

AllShare Play zerbitzua erabiltzeko, zure Google eta Samsung kontuetan saioa hasi beharko duzu, eta gutxienez bi gailu izendatu behar dituzu fitxategi-zerbitzari. Eskura dauden erregistratze-metodoak gailuaren arabera alda litezke. AllShare Play-ren erabilerari buruz gehiago jakiteko, sakatu Aukeren tekla eta hautatu **FAQ**.




Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

### > Fitxategi bat bidaltzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **AllShare Play**.
2. Hautatu multimedia fitxategiak gordeak dituen gailua edo web-biltegia.
3. Hautatu multimedia-kategoria bat eta aukeratu fitxategi bati dagokion kontrol-laukia.
4. Hautatu .
5. Hautatu fitxategia gordetzeko gailua edo web-biltegia.


### > Fitxategi bat partekatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **AllShare Play**.
2. Hautatu multimedia fitxategiak gordeak dituen gailua edo web-biltegia.
3. Hautatu multimedia-kategoria bat eta aukeratu fitxategi bati dagokion kontrol-laukia.
4. Hautatu  eta erabili aukera hauek:
  - Fitxategi bat sare sozial batera kargatzeko, hautatu zerrendako sare sozial bat.
  - Irudi baten URLa transferentzia-eremura gehitzeko, hautatu **Kopiatu arbelera**
  - Irudi baten URLa posta elektronikoz bidaltzeko, hautatu **Vínculo de Correo Electrónico**.

## > Fitxategi bat urruneko gailu batean erreproduzitzea




- Onartzen diren fitxategi-formatuak desberdinak izan daitezke erreproduzigailu moduan konektatuta dagoen gailuaren arabera.
- Fitxategi batzuek tarteko memoria agor lezakete erreprodukzioan zehar, sare-konexioa nolakoa den.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **AllShare Play**.
2. Hautatu multimedia fitxategiak gordeak dituen gailua edo web-biltegia.
3. Hautatu multimedia-kategoria bat eta aukeratu fitxategi bati dagokion kontrol-laukia.
4. Hautatu .
5. Hautatu gailu bat fitxategien erreproduzigailu gisa erabiltzeko.
6. Gailuaren teklen bidez gobernatu erreprodukzioa.

## > Group Cast funtzioa erabiltzea

Zure pantaila WiFi sARBIDE berera konektatutako zenbait gailurekin parteka dezakezu.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **AllShare Play**.
2. Hautatu multimedia-kategoria bat eta aukeratu fitxategi bati dagokion kontrol-laukia.
3. Hautatu  → **Group Cast**.
4. Sartu PINa, eta sakatu **Fin**.
5. Hautatu **OK** Group Cast hasteko.
6. Beste gailu batean, elkartu Group Cast-era PIN kodearen bitartez.

## > Biltegitratzeko web-zerbitzari baten edukia kudeatzea

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **AllShare Play**.
2. Hautatu biltegitratzeko web-zerbitzari bat.
3. Ikusi eta kudeatu zeure fitxategiak.

## > Pertsonalizatu AllShare Play-ko ezarpenak

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **AllShare Play**.
2. Sakatu Aukeren tekla, eta hautatu **Settings**.
3. Aldatu aukera hauek:

Aukera	Funtzioa
Registered storage	Bistaratu biltegitratzeko zer web-zerbitzari gehitu zaizkion AllShare Play-ri.
Registered devices	Ikusi edo editatu AllShare Play-ra bildu diren gailuak.
Setting up web services	Hasi saioa sare sozialetan fitxategiak kargatzeko.
Auto upload	Saioa hastean argazkiak automatikoki deskargatzeko web-biltegitra.
Video quality settings	Ordenagailu batean gordetako bideoak gailuan erreproduzitzean bideo-kalitatea optimizatzen.
Lock AllShare Play	AllShare Play zure Samsung kontuaren pasahitzaz blokeatzeko.
Language	Pantailako hizkuntza hautatzeko.
About	AllShare Play-ri buruzko informazioa bistaratzeko.

## Sare mugikorrek partekatzea

Ikasi gailuaren sareko konexio mugikorra beste gailu batzuekin partekatzen.

### > Zure gailuaren sare mugikorra WiFi bidez partekatzea

Ikasi gailua beste gailuetarako WiFi sarbide moduan erabiltzen.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberak.

1. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Ezarpen gehiago** → **Aing. eta beroa eramang.** → **Wi-Fi bero gune ibiltaria.**
2. Arrastatu **Wi-Fi bero gune ibiltaria** etengailua eskuinerantz sare mugikorrek WiFi bidez partekatze funtzioa aktibatzeke.
3. Hautatu **Konfiguratu** sare-ekarpenak konfiguratzeko eta, hala, gailua sarbide gisa erabiltzeko.
4. Hautatu **Gorde.**
5. Beste gailu batean, zeurearen izena bilatu, hautatu eta haren bitartez konektatu sare mugikorrera.

Aukera	Funtzioa
Sarearen SSID	Kanpoko gailuei agertuko zaien gailu-izena aldatzeko.
Ezkutatu nire gailua	Beste gailu batzuek zure telefonoa ezin dezaten bilatu.
Segurtasuna	Hasi saioa sare sozialetan fitxategiak kargatzeko.
Pasahitza	Sare mugikorrera baimenik gabe inor ez sartzearen pasahitz bat ezartzeko. Behin segurtasun-mota definituta baino ez da eskaintzen aukera hau.
Erakutsi pasahitza	Zure pasahitza sartu ahala ikusi ahal izateko.
Erakutsi aukera aurreratuak	Transmisio-kanala hautatzeko.



- **TalkBack:** TalkBack aktibatzeke, ahotsezko erantzunak izateko.
- **Instalar scripts web:** aplikazioak web-scriptak instalatzeko moduan konfiguratzeko, hartara haien web-edukia irisgarriago bihurtzeko.
- **Kolore negatiboak:** bistaratze-koloreak alderantzikatzeko eta ikusgarritasuna, hartara, hobetzeko.
- **Letraren neurria:** aplikazioetako elementuak sortzeko nahiz bistaratzeko letra-tamaina aldatzeko.
- **Mono audioa:** audioa entzungailu batekin entzun behar bada soinu monofonikoa aktibatzeko.
- **Itzali soinu guztiak:** gailuaren soinu guztiak isilarazteko.
- **Ukitu eta eutsi atzerapena:** pantaila sakatuta atxiki dela atzemateko denbora xedatzeko.

## Garatzailearen aukerak

Aldatu itzazu aplikazioen garapen-doikuntzak.

- **USB arazketa:** USB arazte-modua aktibatzeko, hala ekipo informatiko batera konektatzeko USB kable baten bidez.
- **Baimendu itxurazko kokapenak:** gezurrezko kokapenak eta zerbitzu-informazioa kokapenen administrazio-zerbitzu batera bidal daitezke, egiaztatzeko.
- **Mahai gainaren babes kopiaren pasahitza:** segurtasun-kopiako datuak babestearren, pasahitz bat definitzeko.
- **Modu zorrotza:** aplikazioek iraupen handiko eragiketak egiten dituztenean gailuak distirak jaulkitzeko moduan ezartzeko.

- **Erakutsi erakusle kokapena:** pantaila ukitzean kurtsorearen koordinatuak eta arrastoak bistaratzeko.
- **Erakutsi ukituak:** pantaila ukitzean kurtsorea erakusteko.
- **Erakutsi pantaila eguneraketak:** eguneratzen direnean distira-eremuak definitzeko.
- **Erakutsi CPU erabilera:** prozesu aktiboen zerrenda eskuratzeko.
- **Behartu GPUren errendatzea:** 2D hardwarearen azelerazioa erabiltzeko, hartara errendimendu grafikoa hobetzeko.
- **Leiho animazioaren eskala:** automatikoki bistaratzen diren leihoak zer abiaduratan zabaltzen eta ixten diren hautatzeko.
- **Trantsizioko animazioaren eskala:** pantaila batetik bestera joateko abiadura hautatzeko.
- **Ez mantendu jarduerarik:** exekutatzen ari den aplikazio bat itxiarazteko, beste aplikazio bat hastean.
- **Mugatu hondoko prozesuak:** atzeko planoan exekuta daitezkeen prozesuen kopurua mugatzeko.
- **Erakutsi ANR guztiak:** erantzuten ez duten eta atzeko planoan exekutatzen ari diren aplikazioen berri emateko moduan konfiguratzeko gailua.

## Gailuari buruz

Bistaratu gailuari buruzko informazioa, hala nola eredu-zenbakia eta bertsioa.



firmware-eguneraketak deskargatu eta instalatu ditzakezu FOTA (firmwarea airean) zerbitzuaren bidez. Firmware-eguneraketak bilatzeko, hautatu **Software eguneratzea** → **Eguneratu.**

# Arazoak konpontzea

**Gailua pizten duzunean edo erabiltzen ari zarenean, kode hauetako bat sartzeko eskatzen dizu:**

Kodea	Arazoa konpontzeko, saiatu hau egiten:
Contraseña	Gailua blokeatzeko funtzioa aktibatuta badago, gailuari ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu.
PIN	Gailua lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hori desaktibatuzko, erabili <b>Blokeatu SIM txartela</b> .
PUK	SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea.
PIN 2	PIN 2 kodea eskatzen duen menu batera sartzen bazara, SIM edo USIM txartelarekin emandako PIN 2 kodea sartu behar duzu. Xehetasun gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## **Zure gailuan sare- edo zerbitzu-errorea ageri da**

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Ukipen-pantailak geldo edo modu desegokian erantzuten du

Gailuak aginduei zuzen erantzuten ez dien ukipen-pantaila badu, saiatu honekin:

- Kendu ukipen-pantailaren estalki babesleak. Baliteke estalki babesleak ez uztea gailuari aginduak ezagutzen, eta ez da gomendatzen halako estalkien erabilera ukipen-pantailak dituzten gailuetan.
- Egiatzatu eskuak garbi eta lehor dituzula ukipen-pantaila ukitzean.
- Berrabiarazi gailua softwarearen uneko erroreak erauzteko.
- Egiatzatu gailuaren softwarea bertsio berrienekin eguneratua dagoela.
- Ukipen-pantaila marratua edo kaltetua badago, eraman ezazu gailua Samsung-en zerbitzu teknikoen zentro batera.

## Gailuak ez du erantzuten edo errore larriak ditu

Gailuak ez badu erantzuten edo guztiz geldi geratzen bada, baliteke programa guztiak itxi eta gailua berrezarri behar izatea, gailuak berriz funtziona dezan. Gailuak erantzuten badu baina aplikazio bat geldirik badago, itxi programa ataza-kudeatzailearen bidez. Gailua izoztu egiten bada edo ez badu erantzuten, sakatu pizteko tekla 8-10 segundoz.

Arazoak bere horretan segitzen badu, berrezarri fabrikatik ekarritako datuak. Aplikazio-zerrendan, hautatu **Ezarpenak** → **Babes kopia egin eta berrezarri** → **Berrezarri fabrika datuak** → **Berrezarri gailua** → **Ezabatu dena**.

## Deiak deskonektatu egiten dira

Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, sarerako konexioa gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

## **Ezin da egin irteerako deirik**

- Egiaztatu markaketa-tekla sakatu duzula.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu markatu nahi duzun telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## **Ezin da deirik jaso**

- Ziurtatu gailua piztuta dagoela.
- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## **Solaskideak ezin dizu entzuten deia egitean**

- Ziurtatu ez zarela mugikorraren mikrofonoa estaltzen ari.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen badituzu, ziurtatu behar bezala konektatuta daudela.

## **Soinuaren kalitatea txarra da**

- Egiaztatu ez duzula blokeatzen gailuaren barneko antena.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, harrera gal daiteke. Joan beste leku batera, eta saiatu berriro.

## **Ezin da deirik egin kontaktuetatik markatzean**

- Ziurtatu kontaktuen zerrendan gordetako telefonoa zuzena dela.
- Behar izanez gero, idatzi eta gorde berriro zenbakia.
- Ziurtatu kontaktuaren telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

## **Gailuak soinu bat egiten du, eta bateriaren ikonoa hutsik ageri da**

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria edo jarri beste bat gailua erabiltzen jarraitzeko.

## **Bateria ez da behar bezala kargatzen edo gailua itzali egiten da**

- Baliteke bateriaren terminalak zikinak egotea. Garbitu urre-koloreko kontaktuak zapi garbi eta leun batekin, eta saiatu bateria berriro kargatzen.
- Bateria osoa kargatzen ez bada, bota bateria zaharra behar bezala, eta jarri berria (kontsultatu tokiko arauak nola bota behar den jakiteko).

## **Zure gailua beroa dago**

Gailua berotu egin daiteke aplikazioak denbora luzez erabiltzen badira edo energia gehiago behar duten aplikazioak erabiltzen badira. Hori normala da, eta ez luke eraginik izan behar telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan.

## **Errore-mezuak agertzen dira kamera abiaraztean**

Gailuak nahikoa memoria eta bateria izan behar du eskura kameraren aplikazioa erabili ahal izateko. Kamera abiaraztean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Kargatu bateria edo ordezkia ezazu guztiz kargatuta dagoen beste batekin.
- Eraman datuak ordenagailu batera edo gailutik kendu, memorian toki gehiago egiteko.
- Berrabiarazi gailua. Iradokizun hauei kasu eginda ere kameraren aplikazioarekin oraindik ere arazoak badituzu, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoko zentro batekin.

## **Errore-mezuak agertzen dira FM irratia abiaraztean**

Gailuaren FM irratia aplikazioak entzungailuen kablea erabiltzen du antena gisa. Entzungailuak konektatzen ez badira, FM irratia ezingo ditu jaso irradi-kateen seinaleak. FM irratia entzuteko, lehendabizi egiaztatu entzungailuak zuzen konektatuta daudela. Ondoren, bilatu eta gorde eskura dauden irradi-kateak.

Pauso horiek egin ondoren FM irrati ezin baduzu entzun, saia zaitez irradi-kate hori hartzen beste gailu batekin. Beste gailuan irradi-katea entzun badezakezu, litekeena da zure gailuak zerbitzu teknikoak behar izatea. Jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoekin zentro batekin.

## **Errore-mezuak agertzen dira musika-fitxategiak irekitzean**

Baliteke musika-fitxategi batzuk erreproduzitzerik ez izatea, hainbat arrazoiengatik. Gailuan musika-fitxategiak irekitzean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Eraman datuak ordenagailu batera edo gailutik kendu, memorian toki gehiago egiteko.
- Egiaztatu musika-fitxategia ez duela babesten eskubide digitalen kudeaketa-sistema batek (DRM). Babestua badago, egiaztatu fitxategia erreproduzitzeko beharrezkoa den lizentzia edo gakoa duzula.
- Egiaztatu gailuak fitxategi-mota hori onartzen duela.

## **Ezin da kokatu Bluetooth darabilen beste gailurik**

- Ziurtatu beste gailuan Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatuta dagoela.
- Ziurtatu Bluetooth haririk gabeko funtzioa aktibatuta dagoela konektatu nahi duzun gailuan, beharrezkoa bada.
- Egiaztatu Bluetooth darabilten bi gailuak Bluetoothen gehienezko irismen-erradioaren barruan daudela (10 metro).

Ohar horiei jarraitu ondoren arazoak bere horretan badirau, jarri harremanetan Samsungen zerbitzu teknikoaren zentro batekin.

## **Ez da konexiorik ezartzen gailua ordenagailu bati konektatzean**

- Egiaztatu erabiltzen ari zaren USB kablea gailuarekin bateragarria dela.
- Egiaztatu ordenagailuan dagozkien kontrolagailu guztiak instalatuta eta eguneratuta dituzula.
- Windows XP erabiltzen baduzu, egiaztatu ordenagailuak Windows XP Service Pack 3 nahiz berriagoa instalatuta daukala.
- Egiaztatu ordenagailuak Samsung Kies 2.0 edo Windows Media Player 10 nahiz berriagoa instalatuta daukala.



# Segurtasunari buruzko informazioa

Gailua erabili aurretik, irakurri ondorengo informazioa, zuri edo beste norbaiti lesiorik ez eragiteko eta gailua ez hondatzeko.

**Oharra: saihestu deskarga elektrikoak, suteak eta leherketak.**

**Ez erabili elikatze-kable edo konektore hondaturik, ez eta entxufe solterik ere.**

**Ez ukitu elikatze-kableak esku bustiekin, eta ez egin tira kabletik kargagailua des-konektatzeko.**

**Ez tolestu eta ez hondatu elikatze-kablea.**

**Ez erabili gailua kargatzen ari den bitartean, eta ez ukitu esku bustiekin.**

**Ez eragin zirkuitulaburrik kargagailuan, ez eta baterian ere.**

**Ez kolpatu kargagailua eta bateria, eta ez utzi erortzen.**

**Ez kargatu bateria fabrikatzaileak onartu ez dituen bateriekin.**

**Ez erabili gailua tximista-ekaitza dagoenean.**

Zure gailuak huts egin dezake, eta deskarga elektriko bat jasotzeko arriskua areagotu egin daiteke.

**Ez manipulatu hondatuta dauden edo ihesak dituzten litio-ioizko bateriak.**

Litio-ioizko bateriak modu seguruan botatzeko, jarri harremanetan gertuen duzun baimendutako zerbitzu-zentroarekin.

**Kontuz erabili eta bota bateriak eta kargagailuak**

- Samsungek onartutako eta gailuarentzat bereziki diseinatutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili. Bateragarriak ez diren bateriek eta kargagailuek lesio fisiko larriak eragin diezazkizukete zuri edo kalteak eragin diezazkiokete gailuari.

- Ez bota bateriak eta gailuak sutara. Erabilitako bateriak edo gailuak botatzean, bete tokiko arau guztiak.
- Ez jarri inoiz bateriak edo gailuak berotzen duten tresnen gainean (adibidez, labeak, mikrouhin-labeak, berogailuak edo erradiadoreak). Bateriak lehertu egin daitezke gehiegi berotuz gero.
- Inoiz ez zanpatu edo zulatu bateria. Saihestu goi-presioko tokietan jartzea; izan ere, barneko zirkuitulabur bat gerta daiteke eta gehiegi berotu daiteke.

### **Saia zaitetz telefonoari, bateriei eta kargagailuei kalterik ez eragiten.**

- Saia zaitetz bateriak tenperatura oso altuetan edo oso baxuetan ez jartzen.
- Muturreko tenperaturek kalte egin diezaiokete gailuari, eta kargatzeko gaitasuna eta baterien bizitza erabilgarria murriztu dezakete.
- Saia zaitetz bateriak ez jartzen objektu metalikoak ukitzeko moduan; izan ere, baterien terminal positiboen eta negatiboen artean konexioa sor dezake horrek, eta bateriak aldi baterako edo behin betiko hondatu.
- Ez erabili inoiz hondatutako kargagailurik eta bateriarik.

### **Kontuz: gailua gune murriztuetan erabiltzen baduzu, segi aholkuei eta segurtasun-arauei.**

#### **Ez erabili gailua beste gailu elektronikoetatik gertu.**

Gailu elektroniko gehienek irrati-maiztasuneko seinaleak erabiltzen dituzte. Gailuak interferentziak sor ditzake beste gailu elektroniko batzuekin.

#### **Ez erabili telefonoa taupada-markagailuetatik gertu.**

- Ahal dela, erabili gailua taupada-markagailutik 15 cm-ra gutxienez, gailuak interferentziak sor baititzake.
- Taupada-markagailuarekiko interferentziak ahalik eta gehiena gutxitzeko, erabili gailua taupada-markagailua ez duzun gorputzeko aldean.

#### **Ez erabili gailua erietxeetan, ez eta irrati-maiztasunaren ondorioz interferentziak sor ditzaketen ekipo medikoetatik gertu ere.**

Ekipo medikoren bat erabiltzen baduzu, jakinarazi ekipoaren fabrikatzaileari gailua erabili aurretik, jakiteko gailuak igorritako irrati-frekuentziak eraginik izan dezakeen ekipoan.

## **Audifono bat erabiltzen baduzu, jarri harremanetan fabrikatzailearekin irradi-maiztasunari buruzko informazioa eskuratzeko.**

Gailuak igortzen duen irradi-frekuentziak interferentziak eragin ditzake audifono batzuekin. Gailua erabili aurretik, jarri harremanetan fabrikatzailearekin, jakiteko gailuak igorritako irradi-frekuentziak audifonoari eragingo dion edo ez.

### **Itzali gailua lehergaiak egon daitezkeen inguruetan**

- Lehergaiak egon daitezkeen inguruetan, itzali gailua bateria kendu beharrean.
- Bete beti lehergaiak egon daitezkeen inguruetako arauak, jarraibideak eta ohar-seinaleak.
- Ez erabili gailua erregaia hartzeko lekuetan (zerbitzuguneak), ez eta erregai edo gai kimikoen ondoan ere.
- Ez biltegiratu eta ez eraman suak har dezakeen likidorik, gasik edo leher daitezkeen materialik gailua eta haren piezak edo osagarriak doazen leku berean.

### **Itzali gailua hegazkin baten barruan zaudenean.**

Interferentziak izan litzake hegazkinaren nabigazio-tresna elektronikoekin.

### **Gailuak interferentziak izan ditzake autoetako ekipamendu elektronikoarekin.**

Baliteke zure ibilgailuaren ekipamendu elektronikoek behar bezala ez funtzionatzea gailuaren irradi-maiztasuna dela eta. Jar zaituz fabrikatzailearekin harremanetan informazio gehiago eskuratzeko.

## **Bete itzazu ibilgailu bat gidatzean gailu mugikorrek erabiltzeari buruzko aholku eta arau guztiak.**

Gidatzen duzun bitartean, ibilgailua modu seguruan eramatea da zure ardura nagusia. Legez galarrizita badago, ez erabili gailu mugikorra gidatzen duzun bitartean. Zure eta gainerakoen segurtasunerako, jokatu zentzuz, eta gogoratu aholku hauek:

- Ezagutu gailua eta haren funtzio praktikoak, markaketa bizkorra eta berriro deitzeko funtzioa, esate baterako. Funtzio horiei esker, laburtu egiten da gailu mugikorrarekin deiak egiteko edo jasotzeko denbora.
- Jarri gailua erraz har dezakezun toki batean. Ziurtatu ezazu errepidea bistatik galdu gabe erabil dezakezula haririk gabeko gailua. Egokia ez den une batean dei bat jasotzen baduzu, utzi zure ahots-postontziari erantzuten.

- Eten deiak zirkulazio handia edo eguraldi txarra dagoenean. Euria, elur bustia, elurra, izotza edo zirkulazio handia arriskutsuak izan daitezke.
- Ez idatzi edo bilatu telefono-zenbakirik. Zeregin bat idazteak edo agendan begiratzeak arreta galaraz diezazuke zure ardura nagusian: ziurtasunez gidatzean.
- Zuhurtziaz markatu eta ebaluatu zirkulazioa. Mugitzen ari ez zarenean edo abiatu aurretik egin deiak. Saiatu autoa geldirik dagoela programatzen deiak.
- Ez izan arreta galaraz diezazukeen eta estresa edo emozioa eragin diezazukeen elkarrizketarik. Esan deitzaileari gidatzen ari zarela, eta eten errepideko arreta galarazten dizuten deiak.
- Erabili gailua laguntza eskatzeko. Sute, auto-istripu edo larrialdi medikoren bat gertatuz gero, markatu larrialdi-zenbakia.
- Erabili mugikorra larrialdi-egoeran dauden beste pertsoneri laguntzeko. Auto-istripu bat, delitu bat edo larrialdi handi bat ikusten baduzu eta norbaiten bizia arriskuan badago, deitu tokiko larrialdi-zenbakira.
- Behar den kasu guztietan, deitu errepideetako laguntza-zerbitzuetara edo laguntza-zerbitzu berezi batera, hain larria ez den gertaeraren bat izan denean. Arriskurik eragiten ez duen eta matxuratuta dagoen ibilgailu bat, hondatutako trafikiko-seinale bat, zauriturik izan ez den garrantzi gutxiko istripuren bat edo lapurtu egin dutela ziur dakizun ibilgailu bat ikusi baduzu, deitu dagokion telefono-zenbakira gertaeraren berri emateko.

## **Gailu mugikorraren zaintza eta erabilera egokiak**

### **Ez busti gailua.**

- Hezetasunak eta likidoek gailuko piezak edo zirkuitu elektronikoak honda ditzakete.
- Ez piztu gailua bustita badago. Dagoeneko piztuta badago, itzali, eta kendu bateria berehala (ezin baduzu itzali eta ezin badiozu bateria kendu, utzi dagoen moduan). Gero, lehortu gailua toalla batekin, eta eraman zerbitzu-zentrorra.
- Urak gailuaren barruan eragindako kalteak adierazten dituen etiketaren kolorea aldatzen dute likidoek. Urak gailuan kalteak eraginez gero, baliorik gabe gera daiteke fabrikatzailearen bermea.

## **Ez erabili edo gorde gailua hauts handia edo aireak ekarritako materialen kontzentrazio handia egonez gero.**

Hautsak edo material arrotzek gailuak gaizki funtzionatzea eragin dezakete, eta, horren ondorioz, sutea nahiz deskarga elektriko bat gerta daitezke.

## **Gailua toki lauetan utzi**

Erortzen bada, hondatu egin daiteke.

## **Ez gorde gailua toki bero edo hotzetan. -20 °C eta 50 °C bitarteko tenperaturetan erabili gailua.**

- Gailua ibilgailu itxi batean utziz gero, baliteke lehertzea, barruko tenperatura 80 °C-ra iritsi baitaiteke.
- Ez utzi gailua denbora luzean eguzkiaren argiak zuzenean jotzen duela (adibidez, autoaren aginte-mahaiaren gainean).
- Gorde bateria 0 °C eta 40 °C bitartean.

## **Ez gorde gailua metalezko objektuekin (txanponak, giltzak eta lepokoak, adibidez).**

- Gerta daiteke gailua urratzea edo gaizki funtzionatzea.
- Bateriaren terminalek metalezko objektuak ukitzen badituzte, sutea sor daiteke.

## **Ez gorde gailua eremu magnetikoetatik gertu.**

- Gerta daiteke gailua gaizki funtzionatzen hastea eta bateria deskargatzea eremu magnetikoen ondorioz.
- Banda magnetikoak dituzten txartelak (kreditu-txartelak, telefono-txartelak, aurrezki-libretak eta ontziratze-txartelak) hondatu egin daitezke eremu magnetikoen ondorioz.
- Ez erabili itxiera magnetikoak dituzten kutxatilak edo osagarriak, eta ez utzi gailua eremu magnetikoekin kontaktuan denbora luzez.

## **Ez gorde gailua berogailuetan, mikrouhin-labeetan, sukaldeko ekipa beroetan eta goi-presioko edukiontzietan, ezta horietatik gertu ere.**

- Bateriak ihesak izan ditzake.
- Bateria gehiegi berotu daiteke, eta sutea eragin.

## **Ez utzi gailuari erortzen, eta ez eman kolpe handirik.**

- Pantaila hondatu egin daiteke.
- Tolesten edo itxuraldatzen baduzu, litekeena da gailua hondatzea eta piezek ondo ez funtzionatzea.

## **Gailua berotu egiten bada, utzi gailua edo aplikazioak erabili gabe denbora batez.**

Azala denbora luzez gailu bero batekin kontaktuan egonez gero, tenperatura baxuko erredura-sintomak izan ditzakezu, hala nola orban gorriak eta pigmentazioa.

## **Zure gailuak kamerarentzako lanpara bat edo flash bat badu, ez ezazu erabili pertsonen eta animalien begietatik gertu.**

Ikusmena aldi batez gal daiteke, edo begiak kaltetu ditzake.

## **Kontuz ibili argi keinukariekin.**

- Gailua erabiltzen duzunean, utzi gelako argiren bat piztuta, eta ez jarri pantaila begietatik gertuegi.
- Konbultsioak eta zorabioak gerta daitezke argi keinukarien eraginez, denbora luzez argi keinukariak dituzten bideoak edo jolasak erabiltzean. Ondoeza sentitzen baduzu, utzi berehala gailua erabiltzeari.

## **Murriztu itzazu behin eta berriro mugimendu bera egiteagatik sortutako lesioak.**

Ekintza bera behin eta berriro egiten duzunean (esaterako, teklak sakatzea, karaktereak marratzea hatzekin ukipen-pantailan edo jolastea), baliteke mina sentitzea eskuan, lepoan, sorbaldan edo gorputzeko beste zati batean. Gailua denbora luzez erabiltzen duzunean, euts iezaiozu eskua erlaxatua duzula, kontuz sakatu teklak eta egin etenak sarri. Ekintza horiek egiten ari zarela edo egin ondoren ere mina sentitzen baduzu, utzi gailua erabiltzeari, eta galdetu medikuari.

## **Saiatu bateriak eta kargagailuak ahalik eta bizitza erabilgarri luzeena izan dezaten**

- Ez kargatu bateria astebete baino gehiago, gehiegizko kargak haren bizitza erabilgarria moztu baitezake.
- Denborarekin, bateriak deskargatu egiten dira erabiltzen ez badira, eta beharrezkoa da berriro erabiltzeko kargatzea.
- Erabili behar ez direnean, deskonektatu kargagailuak energia-iturrietatik.
- Erabili bateriak diseinatuta dauden helbururako bakarrik.

## **Fabrikatzaileak onartutako bateriak, kargagailuak, osagarriak eta hornigaiak bakarrik erabili.**

- Bateria edo kargagailu generikoak erabiltzearen ondorioz, gailuaren bizitza erabilgarria laburtu egin daiteke, edo funtzionamendu okerra eragin daiteke.
- Samsung ez da erabiltzailearen segurtasunaren arduradun, markak onartutakoak ez diren osagarriak edo hornidurak erabiliz gero.

## **Ez kosk egin edo miazkatu gailua edo bateria.**

- Gailua honda daiteke edo leherketa bat eragin.
- Gailua umeez erabiltzen dutenean, ziurtatu behar bezala erabiltzen dutela.

## **Ez sartu gailua eta harekin datozen osagaiak begietan, belarrietan eta ahoan.**

Bestela, ito egin zintezke, edo lesio larriak izan.

## **Telefonoz hitz egiten ari zarela:**

- Eduki ezazu bertikalean, betiko telefonoarekin egingo zenukeen bezala.
- Mikrofonotik hurbil hitz egin.
- Ez ukitu gailuaren barneko antena. Hori eginez gero, gerta daiteke deien kalitatea txikitzea edo irrati-frekuentzien nahi gabeko mailak igortzea gailuak.

## **Entzungailuak erabiltzen dituzunean, babestu entzumena eta belarriak.**



- Soinuen gehiegizko mailak entzumenari kalte egin diezaioke.
- Gidatzen ari zarela soinua altuegi izanez gero, arreta galaraz dezake, eta istripua eragin.
- Jaitsi bolumena entzungailuak audio-iturri batera konektatu aurretik, eta erabili behar duzun bolumen minimoa musika edo elkarrizketa entzuteko.
- Inguru lehorretan, baliteke elektrizitate estatikoa pilotzea entzungailuetan. Saiatu entzungailuak ez erabiltzen inguru lehorretan, edo ukitu metalezko objekturen bat entzungailuak gailura konektatu aurretik, elektrizitate estatikoa deskargatzeko.

## **Ibiltzen edo mugitzen ari zarenean, erabili gailua arretaz.**

- Arretaz begiratu inguruetara, zuri eta ingurukoei lesio fisikoak ez eragiteko.
- Ziurtatu entzungailuen kablea ez zaizula korapilatu besoetan edo inguruko objektuetan.

## **Ez eraman gailua kanpoko poltsikoetan edo gerriaren inguruan.**

Eroriz gero, min har dezakezu, edo gailua hondatu egin daiteke.

## **Ez desmuntatu, aldatu edo konpondu gailua.**

- Gailuan aldaketaren bat eginez gero, fabrikatzailearen bermea bertan behera gera daiteke. Gailua konpondu behar baduzu, eraman ezazu Samsungen zerbitzu-zentro batera.
- Ez desmuntatu edo zulatu bateria, horrek leherketa edo sute bat eragin baitezake.

## **Ez margotu gailua, eta ez jarri eranskailurik**

Pinturak eta eranskailuek zati mugikorrei traba egin diezaiekete, eta baliteke gailuak behar bezala ez funtzionatzea. Pinturari edo produktuaren alde metalikoei alergia badiezu, baliteke azkura, ekzemak edo hanturak izatea azalean. Hori gertatzen bada, ez erabili gehiago gailua, eta galdetu medikuari.

## **Gailua garbitzen duzunean:**

- Erabili eskuoihal bat edo trapu bat gailua edo kargagailua garbitzeko.
- Garbitu bateriaren terminalak kotoiaz edo eskuoihal batez.
- Ez erabili gai kimikorik, ez eta garbigarririk ere.

## **Ez erabili gailua pantaila pitzatuta edo hautsita badago.**

Hautsitako beirak zauriak eragin ditzake eskuetan eta aurpegian. Eraman gailua Samsungen zerbitzu-zentro batera, konpontzeko.

## **Ez erabili diseinatuta dagoen helbururako ez bada.**

## **Gailua jendaurrean erabiltzen duzunean, saiatu ingurukoak ez molestatzen.**

## **Ez utzi hurrei gailua erabiltzen.**

Gailua ez da jostailu bat. Ez utzi umeei mugikorrekin jolasten; min har dezakete, eta beste batzuei min egin, gailua honda dezakete, edo kontsumo-gastua areagotuko duten deiak egin ditzakete.



## **Kontuz instalatu gailu mugikorrak eta gainerako tresnak**

- Ziurtatu gailu mugikor osoa eta zure ibilgailuak instalatutako lotutako tresnak modu zurrean muntatuta daudela.
- Ez jarri gailua eta osagarriak airbag-etik gertu edo airbag-a zabaltzen den tokian. Ongi instalatuta ez dauden haririk gabeko ekipoek lesio larriak eragin ditzakete airbagak bizkor puzten direnean.

## **Langile adituei soilik utzi gailuaren mantentze-lanak egiten.**

Baliteke kalteak sorraraztea eta fabrikatzailearen bermea bertan behera geratzea, baldin eta adituak ez diren langileei gailuaren mantentze-lanak egiten uzten badiezu.

## **Kontuz erabili SIM txartelak eta memoria-txartelak.**

- Ez atera txartela gailua informazioa transferitzen ari den bitartean edo txartelera sarbidea duzunean; izan ere, datuak gal ditzakezu, eta txartela edo gailua hondatu.
- Babestu txartelak deskarga bortitzetatik, elektrizitate estatikotik eta beste gailu batzuek eragindako zarata elektrikotik.
- Ez ukitu urre koloreko kontaktuak edo terminalak hatzekin edo metalezko objektuekin. Txartela zikina badago, garbitu zapi leun batekin.

## **Bermatu larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea**

Baliteke eremu edo egoera batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea. Urruneko herrialdeetara edo garabidean daudenetara joan aurretik, planifikatu larrialdi-zerbitzuekin harremanetan jartzeko metodo bat.

## **Gorde modu seguruan zure datu pertsonalak eta datu garrantzitsuak.**


- Gailua erabiltzean, ziurtatu datu garrantzitsuen segurtasun-kopiak egin dituzula. Samsungek ez du bere gain hartzen datuak galtzearen ardura.
- Gailua botatzen duzunean, egin datu guztien segurtasun-kopia bat, eta, gero, berrezarri gailua zure informazio pertsonala ez dadin modu desegokian erabili.
- Aplikazioak deskargatzean, arretaz irakurri baimenen pantaila. Kontu berezia izan funtzio baterako baino gehiagorako sarbidea duten aplikazioekin eta informazio pertsonaleko sarbidea dutenekin.
- Aldizka, kontrolatu zure kontuak, erabilera susmagarriak edo baimendu gabeak saihesteko. Zure informazio pertsonala gaizki erabili izanaren zeinurik ikusten baduzu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin, zure kontuko informazioa ezabatzeko edo aldatzeko.

- Gailua galtzen baduzu edo lapurtzen badizute, aldatu zure kontuen gako-hitzak, zure informazio pertsonala babesteko.
- Iturri ezezaguneko aplikazioak erabiltzea saihestu, eta blokeatu gailua, patroi bat, gako-hitz bat edo PIN bat erabiliz.

## **Ez zabaldu egile-eskubideekin babestutako materialik.**

Ez zabaldu egile-eskubideen legeekin babestutako materialik edukiaren jabeen baimenik izan gabe. Hori eginez gero, baliteke egile-eskubideen legeak urratzea. Fabrikatzaileak ez du bere gain hartzen erabiltzaileak materialaren legez kanpoko erabilera egitea.

## **Produktu hau behar bezala botatzea**




(Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinak)

(Europar Batasunean eta hondakinen gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan)

Produktuan, osagarrietan edo harekin batera doan material informatiboan ikur hori agertzen bada, horrek esan nahi du produktua eta haren osagarri elektronikoak (kargagailua, entzungailuak, USB kablea) ez direla bota behar etxeko gainerako hondakinekin. Hondakinak kontrolik gabe botatzeagatik ingurumenari edo osasunari sor dakizkiokeen kalteak saihesteko, bereizi produktu horiek gainerako hondakinetatik, eta birziklatu behar bezala. Horrela, baliabide materialen berrerabilpen jasangarria bultzatzen da. Erabiltzaile partikularrak produktua erosi zuten saltokiarekin edo tokiko agintariekin harremanetan jar daitezke, modu ekologiko eta seguruan birziklatzeko nora eraman dezaketen jakiteko.

Enpresa erabiltzaileak hornitzailearekin harremanetan jar daitezke, erosketa-kontratuaren baldintzen berri jakiteko. Produktu hau eta berekin dakartzan osagarri elektronikoak ez dira bota behar enpresako gainerako hondakinekin.

## Produktu honen bateriak behar bezala botatzea



(Europar Batasunean eta baterien gaikako bilketako sistemak dituzten Europako beste herrialde batzuetan). Produktuaren baterietan, eskuliburuan edo paketean marka hau badago, horrek esan nahi du baterien bizitza erabilgarria amaitzean ez direla bota behar etxeko beste hondakinekin batera. Hg, Cd edo Pb ikur kimikoak agertzen badira, horrek esan nahi du bateriak merkurioa, kadmioa edo beruna dituela EBren 2006/66 Direktiban erreferentziatutako jarritako balioen gainetik. Bateriak behar bezala botatzen ez badira, substantzia horiek norbaiten osasuna edo ingurumena kaltetu dezakete. Baliabide naturalak babesteko eta

birziklatzea bultzatzeko, bereizi bateriak gainerako hondakinetatik, eta birziklatu zure herriko doako bilketa-sistemaren bidez.

## Erantzukizunetik salbuesteko klausula

Gailu honen bidez erabil ditzakezun zenbait eduki edo zerbitzu beste hirugarren batzuenak dira, eta egile-eskubideen, patenteen, marka erregistratuen eta/edo jabetza intelektualeko beste zenbait legeren babespean daude. Eduki eta zerbitzu horiek erabilera pertsonalerako soilik ematen dira, ez enpresetan erabiltzeko. Baliteke edukiak edo zerbitzuak erabiltzerik ez izatea edukiaren jabeak edo zerbitzu-hornitzaileak baimendu ez duen moduren batean. Aurrez esandakoa alde batera utzi gabe, gailu honen bidez erakusten diren edukiak edo zerbitzuak ezin dira inolaz ere aldatu, kopia-tu, berrargitaratu, kargatu, argitaratu, transmititu, itzuli, saldu, eratorritako obrarik sortu, ustiatu edo banatu, edukiaren jabeak edo zerbitzuen hornitzaileak espresuki baimena ematen ez badu behintzat. EDUKIA ETA HIRUGARRENEN ZERBITZUAK "BERE HORRETAN" EMATEN DIRA. SAMSUNGEK EZ DU EMATEN EMANDAKO EDUKIEN NAHIZ ZERBITZUEN BERMERIK, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI, HELBURUA EDOZEIN DELA ERE. SAMSUNGEK ESPRESUKI EGITEN DIE UKO BERME INPLIZITU GUZTIEI; BESTEAK BESTE, MERKATURATZE-BERMEEI ETA XEDE JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI. SAMSUNGEK EZ DU BERMATZEN GAILU HONEN BIDEZ ERABIL DAITEKEEN INONGO EDUKI EDO ZERBITZUREN EGIAZKOTASUNIK, BALIOZKOTASUNIK, ERREPRODUKZIORIK, LEGEZKOTASUNIK EDO OSOTASUNIK; HORREZ GAIN, SAMSUNG EZ DA INOIZ IZANGO EZ KONTRATU BIDEZ, EZ BIDEGABEKERIAZ (EZ ETA ZABARKERIAGATIK GERTATZEN DENEAN ERE), ZUZENeko KALTEEN, ZEHARKAKOEN, ISTRIPUENGATIKOEN, BEREZIEN, ONDORIOZKOEN, ABOKATUEN ORDAINSARIEN, GASTUEN EDO HEMEN AGERTZEN DEN INFORMAZIOAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN EDO HORRI LOTUTAKOEN ARDURADUN. BESTALDE, EZ DA IZANGO ZURE EDO HIRUGARREN BATEN ERABILERAREN ONDORIOZKO KALTEEN ARDURADUN, EZ ETA KALTE HORI GERTA ZITEKE-ELA OHARTARAZI BAZEN ERE.

Hirugarrenen zerbitzuak noiznahi amaitu edo eten daitezke, eta Samsungek ez du eskaintzen edukia edo zerbitzua inolako denbora-epetan erabilgarri egoteko ordezkartzarik nahiz bermerik. Edukia eta zerbitzuak transmisio-sareen eta -instalazioen bidez helarazten dituzte hirugarrenek, eta Samsungek ez du kontrolik haietan. Klausula honen orokortasuna mugatu gabe, Samsungek berariaz uko egiten dio gailu honen bidez erabil daitekeen edozein eduki edo zerbitzu eteteari edo amaitzeari. Edukiari eta zerbitzuei lotutako bezeroarentzako arreta-zerbitzuaren ardurarik ez du Samsungek. Edukiari edo zerbitzuei lotutako galdera edo eskaeraren bat izanez gero, zerbitzuen eta edukiaren hornitzaileei bidali behar zaie, zuzenean.

# Aurkibidea

<b>alarmak</b>	<b>133</b>	<b>blokeatzea, automatikoki</b>	<b>54</b>
<b>AllShare Cast 1</b>	<b>21</b>	<b>Bluetooth</b>	<b>127</b>
<b>AllShare Play</b>	<b>122</b>	<b>deiak</b>	
<b>Android Beam</b>	<b>140</b>	berbidaltzea	55
<b>Aplikazioak</b>		deian zehar aukerez baliatzea	51, 52
abiaraztea	37	dei anizkoitzak egitea	
antolatzea	38	(multikonferentzia)	52
deskargatzea	38	egitea	49
desinstalatzea	38	errefusatzea	50
hainbat zeregin	39	erregistroak ikustea	56
ixtea	39	markaketa bizkorra	93
<b>argazkiak</b>		murritztea	55
egitea	69	nazioarteko deiak egitea	50
ikustea	82	zain	56
<b>bateria</b>		<b>dei anizkoitzak (multikonferentzia)</b>	<b>52</b>
kargatzea	17	<b>doikuntzak</b>	<b>143</b>
sartzea	15	<b>energia aurrezpena</b>	<b>20, 150</b>
<b>bideoak</b>		<b>fitxategi-administragailua</b>	<b>137</b>
erreproduzitzea	84	<b>FDN modua</b>	<b>54</b>
grabatzea	75	<b>FM irratia</b>	<b>89</b>
YouTubera igotzea	114	<b>gailua blokeatzea</b>	<b>42</b>
<b>bideo-erreproduzigailua</b>	<b>79</b>	<b>galeria</b>	<b>82</b>
<b>bilgarria kentzea</b>	<b>11</b>	<b>Google Latitude</b>	<b>107</b>

<b>Google Mail</b>	<b>62</b>	helbideak lortzea	108
<b>Google Maps</b>	<b>107</b>	kokapenak bilatzea	108
<b>hegazkin-modua</b>	<b>23</b>	kokapenak partekatzea	107
<b>ikono adierazleak</b>	<b>32</b>	nabigazioa erabiltzea	109
<b>Internet</b>	<b>102</b>	<b>memoria-txartela</b>	
<b>kalkulagailua</b>	<b>133</b>	formateatzea	22
<b>kamera</b>		kentzea	22
kameraren ezarpenak aldatzea	73	sartzea	21
bideokameraren ezarpenak aldatzea	77	<b>mezuak</b>	
bideoak grabatzea	75	ahots-postontzira sartzea	62
argazkiak egitea	69	erregistroak ikustea	56
<b>Konektagarritasuna</b>		Google Mail bidaltzea	62
AllShare Play	122	Google Mail ikustea	63
Bluetooth	127	multimedia bidaltzea	61
GPS konexioak	129	multimedia ikustea	61
NFC	139	posta elektronikoa bidaltzea	64
sare mugikorrek partekatzea	125	posta elektronikoa ikustea	65
USB konexioak	115	testua bidaltzea	60
VPN konexioak	131	testua ikustea	61
WiFi	117	<b>modema</b>	
<b>kontaktuak</b>		Bluetooth bidez	126
bilatzea	92	USB bidez	126
kopiatzea/mugitzea	94	WiFi bidez	125
inportatzea/esportatzea	95	<b>modu isila</b>	<b>40</b>
markaketa bizkorra zehaztea	93	<b>munduko erlojua</b>	<b>134</b>
sortzea	92	<b>musika-erreproduzigailua</b>	<b>85</b>
taldeak sortzea	94	<b>NFC</b>	<b>139</b>
<b>kronometroa</b>	<b>134</b>	<b>nire mugikorra aurkitzea</b>	<b>45</b>
<b>mapak</b>		<b>pantaila</b>	

argitasuna	41	Samsung teklatuarekin	46
atzealdeak	41	<b>ukipen-tonuak</b>	<b>40</b>
ezarpenak	147	<b>ukipen-pantaila</b>	
hizkuntza	40	blokeatzea/desblokeatzea	31
letra-mota	41	erabilera	24
<b>pantaila nagusia</b>		<b>USB konexioak</b>	
elementuak kentzea	34	haririk gabeko modem gisa	126
elementuak mugitzea	34	kamera-gailu gisa	116
jakinrazpen-panela erabiltzea	33	multimedia gailu gisa	116
panelak gehitzea	35	Samsung Kiesekin	115
panelak kentzea	35	Windows Media erreproduzigailuarekin	115
widgetak erabiltzea	36	<b>VPN konexioak</b>	<b>129</b>
<b>Play Store</b>	<b>111</b>	<b>web nabigatzailea</b>	<b>102</b>
<b>Samsung Apps</b>	<b>112</b>	<b>WiFi</b>	<b>117</b>
<b>Sartzeko kodeak</b>	<b>163</b>	<b>YouTube</b>	<b>112</b>
<b>S Beam</b>	<b>140</b>		
<b>SIM/USIM txartela</b>			
blokeatzea	44		
sartzea	15		
<b>soinua</b>			
dei-doinua	40		
ezarpenak	146		
gailuaren bolumena	40		
ukipen-tonuak	40		
<b>tenporizadorea</b>	<b>135</b>		
<b>teklen funtzioa</b>	<b>14</b>		
<b>testua idaztea</b>			
Google-ren ahots bidezko sarrerarekin	46		
kopiatzea eta itsastea	48		

Baliteke eskuliburu honen edukia zure gailuarekin erabat bat ez etortzea, gailuaren softwarearen edo zure zerbitzu-hornitzailearen arabera.

## **Samsung Kies (PC Sync) ? Kies instalatzeko**

1. Deskargatu Samsung Kies-en azken bertsioa Samsung-en webgunetik ([www.samsung.com/kies](http://www.samsung.com/kies)), eta instalatu zure ordenagailuan.
2. Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.  
Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Samsung Kiesen laguntza.

## **Adostasun-deklarazioaren laburpena**

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 99/05/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori 2000ko azaroaren 20ko 1890/2000 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.